




ISIS  
LEARN  
AAR  
AK

NERABEZAROKO  
SEXU-ERASOEI BURUZKO  
AZTERKETA

ISI  
LAR  
AK  
AK



Argitalpen hau Granadako Unibertsitateko Soziologia Saileko irakasle eta ikertzaile Carmen Ruiz Repulloko egindako aurretiatzko ikerketan oinarritu da.

*Intzidentzia sozial eta politikoko zuzendaria:* Catalina Perazzo; *haurtzarolari buruzko politiken arduraduna:* Carmela del Moral; *argitalpenaren koordinatzailea eta egilea:* Cristina Sanjuán; *itzulpena:* Aztiri-futurnet; *arte eta maketazioa:* Óscar Naranjo/Elena del Real; *ilustrazioak:* Marta Colomer.




Argitaratzailea:

**Save the Children Espainia**  
2024ko martxo

## **Aurkibidea**

Sarrera	5
Sexualitatea eraikitzea	6
Onespena funtsezko elementu gisa	13
Sexu-indarkeria: kontzeptua eta magnitudea	17
Nerabearoa eta sexu-indarkeria	26
Nerabeek egindako taldeko sexu-erasoak	44
Ondorioak: erantzukizun partekatua	51
Gomendioak: babes-faktoreak	53
Bibliografia	60



## 1. Sarrera

Nerabeek egindako sexu-erasoak gero eta kezka handiagoa sortzen ari dira azken urteotan, eta haurren eta nerabeen eskubideen eta generoaren ikuspegitik gaia sakon aztertzea merezi du.

Taldean egindako erasoak, bereziki, gure gizartean gero eta gehiagotan ikusten den delitua da; indarkeria handia erabiltzen da halakoetan, eta horrelako erasoak oihartzun handia izaten ari dira azken urteotan komunikabideetan.<sup>1</sup> Hala ere, bide luzea dago egiteko oraindik delitu horien ikerketan eta lanketan.

Komunikabideetan halako kasu bat agertzen denean, alarma automatikoa pizten da, haurtzaroan eta nerabezaroan zer gertatzen ari den eta helduen mundutik zer ez dugun kontuan hartu birplanteatzera eramaten gaituena.

Haur eta gazte garaiko kriminalitatea, nerabezaroaren garapen-etaparekin lotutako arazoa denez, heldu garaikoaren desberdina da, eta, batzuetan, konplexuagoa.<sup>2</sup> Lehenago ere esan izan dugunaren ildotik, fase konplexua da, eta haurtzaroarekiko haustura eta helduarorako igarotzea ditu ezaugarri, aldaketa fisiko eta psikologikoekin batera. Garai horretan, parekoen taldea erreferentzia-ardatz bihurtzen da, eta mendekotasun-egoera batetik autonomia handiagoko beste egoera batera igarotzen dira gazteak.<sup>3</sup>

Horregatik, hausnarketa baten bidez, Save the Childrenetik indarkeria mota horretan murgildu nahi izan dugu, alarma soziala errealitatearekin bat ote datorren jakiteko. Horretarako, datu ofizialak eta literatura berrikustez gain,

---

1 Literatura espezializatuan, oraindik ez dago adostasunik horrelako erasoak izendatzeko terminologia egokiari buruz. Hona hemen erabilitako termino batzuk: *multiple perpetrator rape* (MPR); *multiple perpetrator sexual assault* (MPSA); *sexual offending in groups*, *multiple perpetrator sex offending*.

2 Colás Turégano, A. (2011). Derecho Penal de Menores. Tirant lo Blanch, Valentzia.

3 Haurren Eskubideen Batzordea (2016). 20. ohar orokorra, haurrak nerabezaroan dituen eskubideen eraginkortasunari buruzkoa.

nerabeei, hainbat alorretako profesionalei eta gaian adituak diren pertsoneri galdetu diegu.

Dokumentu honek ez du fenomeno horren azterketa zehatz, kualitatibo eta kuantitatiboa izan nahi, eta ez du esparru juridikoa eta legegilea xehatzeko helbururik. Nerabeen arteko sexu-indarkeriari eta horrek haurtzaroan, nerabezaroan eta gizartean duen eraginaren inguruko gai garrantzitsuenen erradiografia egitea da helburua.

Ez da lan erraza, batez ere kontuan hartuta gizartearen egungo polarizaziotik at ez dagoen gai sentikor baten aurrean gaudela. Hala ere, espero dugu gehiago ikertzeko motorra izatea eta zenbait zalantza edo mito argitzen laguntzea, bai eta indarkeria desagerrarazteko galdera egokiak egiten laguntzea ere.

---

## 2. Sexualitatea eraikitzea

Haurrak eta nerabeak garatzen diren gizartean berezkoak diren genero-rolak eta -estereotipoak beren gain hartuz hazten dira. Beraz, oraindik ere desorekak markatutako sexualitatearen eraikuntzak neskei zein mutilei eragiten die. Testuinguru horretan kokatzen dira, halaber, hainbat errealitate, hala nola hipersexualizazioa, nesken kosifikazioa edo mutilek sexualitatea eskatzaile gisa bizitzeko duten betebeharra.

Testuinguru horretan, “Sexu-(des)informazioa: pornografia eta nerabezaroa” txostenean aztergai izan genuen pornografia da oinarri desorekatu horiek zabaltzen dituen; gizartearen *pornifikazioa* gertatu da, eta fenomeno horri *pornosozializazio* deitu dakioke.<sup>4</sup> Gizartean maskulinitatea eta feminitatea

**“Sexualitatea pertsonaren beste elementu bat da, eta harmonian hazi behar du”.**

Justiziaren esparruko profesionala

---

4 Ruiz-Repullo, C. (2021). *Nuestros cuerpos, nuestras vidas. Un acercamiento a la violencia sexual en la juventud*. Universitat de les Illes Balears: Colección Estudios de Violencia de Género, 9.

eraikitzean, eragile tradizionalak eta berriak, digitalak, agertzen direla ere ikusiko dugu, eta testuinguru beretik datoz guztiak.

## **2.1. Nerabeen feminitatea**

Nesken (haurrak eta nerabeak) sexualizazioak hasiera-hasieratik eta haurtzarotik zehazten du feminitatearen eraikuntza. Genero-rol eta -estereotipoek baldintzatzen dituzte neskak, besteak beste: maitasuna erdigunean jartzeak, betetzeko zaila den edertasun-kanon bat betetzeak, sexualki atseginak izateak eta, aldi berean, sexualitatea isilpean bizitzeak. Nerabearora iristean, genero-desberdintasunek eta -desorekek garrantzi handiagoa hartzen dute, eta, horren ondorioz, haien eskubideak gehiago urratzen dira.<sup>5</sup>

Eragile tradizionalak ere badute zeresana hemen, hala nola familia-inguruneak, hezkuntza-inguruneak, parekoen taldeak edo komunikabideek, baina oso garrantzitsua da azpimarratzea eraikuntza hori lehen haurtzarotik sortzen dela, hipersexualizazioarekin. Panpinak (edertasun-kanonaren zentzuan), marrazki bizidunak, bideoak eta telebistako programak, sare sozialak..., guztiak ere inoiz lortu ez zirenen edertasun eta gorputz-eredu femeninoari zuzendutako produktuak.

Haur eta nerabe nesken kasuan ere eginkizun garrantzitsua du askatasunez mozorrotutako hipersexualizazioak. Neskek, ustez, sexualitatea askeago bizi dute (hasiera batean, badirudi ez dela sexualitate hori ezkutatu edo babestu behar), baina interpretazio okerra egin daiteke, eta kontrakoa lortzea ekar dezake horrek: “ideal sexual” hori lortzeko ahaleginean, beren garapenaren beste alderdi batzuei kalte egitea eta uko egitea, eta abar.

Eta pornografiak, sexualitatearen egungo irakaslea denak, zeregin garrantzitsua du hor ere. Ikus daiteke neskek neurri handiagoan bilatzen dutela haiengandik

**“Gizarte erasokor eta diskriminatzaile batean bizi gara, eta balantzak emakumeen aldera egiten du; horren ondorioz, segurtasun-neurri jakin batzuk hartzen dituzte”.**

Osasunaren arloko profesionala

<sup>5</sup> Haurren Eskubideen Batzordea (2016). 20. ohar orokorra, haurrak nerabearoan dituen eskubideen eraginkortasunari buruzkoa.

**“Ahohandiak gara, eta hori normala dela esaten digute; horregatik, ez dugu mutilekin hitz egiten, gure taldeko neskekin baizik”.**

Neska nerabea

zer espero den, eta proportzio handiagoan arduratzen direla bikotekideen sexu-nahiak asetzeaz, baita harremana berdintasunezkoztat jotzen denean ere.

Nerabe neskek, sexu-indarkeriari, matxismoari edo desorekei buruz galdetzen dietenean, sentsazio orokor bat transmititzen dute: nekea. Nekatuta daude gai horiei buruz hitz egitean zalantzan jartzen dituztelako eta mutilekin liskarrak izaten dituztelako.

## **2.2. Nerabeen maskulinitatea**

Maskulinitate esatea ez da “gizon” edo “mutil” esatea. Une historikoaren eta gizartearen arabera, gizon izateak zer esan nahi duen definitzen duen portaera da maskulinitatea. Beraz, ez dago maskulinitate bakarra, eta denboran zehar aldatu daiteke, gizarteak zehazten duenaren edo eragiten dion testuinguruaren arabera.

Hala, bada, maskulinitate hegemonikoa gizon izateko moduarekin lotuta dago, gizon batek izan behar duen moduaren ikuskera sozialarekin, eta horrelakoa izan beharko luke kultura patriarkalarentzat ideala izateko: lehiakorra, indartsua, gogorra, gihartsua, ausarta, gizon-itxurakoa, ekintzailea, independentea, bere buruarekiko segurua eta garailea. Lehen haurtzarotik dago baldintzatuta maskulinitate hori, genero-rolen eta -estereotipoen bidez nahiz jostailuen erabileraren eta sozializazio-espazioen (jolas-ordua, adibidez) bidez: fisikoki indartsuak, sexualki aktiboak, arrisku-egoerak bizi dituztenak, emozioetatik urruntzen direnak eta kontrol- eta menderatze-jarrerak dituztenak; azken horiek babesarekin edo afektuarekin nahasten dira. Gainera, jarrera horiek eremu pertsonalean bizitzeaz gain, ingurunean ere bizi dira, eta gainerako mutilekin edo gizonekin batera kanpora begira egiten diren erakustaldien bidez sozializatzen dira.<sup>6</sup> Beharrezkoa litzateke sareko edukiek maskulinitatearen eraikuntzan eta, horren ondorioz, desoreken eraikuntzan duten eraginean sakontzea. Haurrak

<sup>6</sup> Amorós, C. (editorea) (2000). *Feminismo y filosofía*. Madril: Editorial Síntesis.





hazten ari diren bitartean Internetik gabeko genero-estereotipoek eta -rolek zehaztutako testuinguru batetik abiatzen bagara, ez dute inolako eraginik izango desoreka hori argi eta garbi erakusten eta normalizatzen duten eduki digitalekiko esposizioak eta eduki horien kontsumoak?

Mutilek ere ez dute aukerarik, maskulinitatearen erakustaldi hau ez baita inoiz amaitzen, betirako da, eta bizitzaren arlo guztietan erakutsi behar da: fisikoan eta ahozkoan, analogikoan eta digitalean. Testuinguru horretan agertzen dira erasoen edo arrisku-egoeren grabazioak, balentria bihurtzen direnak, hala nola orduko 200 km-ko abiadura gidatzea edo martxan doan tren batera salto egitea. Adibide gisa, maskulinitate horren eraginez, gazteek sexu-esperientziak izatea espero da, gizentasunaren erakusgarritzat jotzen delako; izan ere, hori egin ezean, gizarteak zalantzan jar dezake haien maskulinitatea.

Pornografia, berriz ere, maskulinitatearen hastapen-erritu gisa agertzen da parekoen artean: sexu-harremani buruzko espektatibak sortzen ditu, harreman horietan indarkeria normalizatzen du eta lagun taldean egunero partekatzen diren edukien parte bihurtzen da.

Mutilen eztabaida-taldean, neskek batzuetan gehiegikeriaz jokatzeko dutela esaten da, eta batzuetan indarkeriaz hitz egiten dutela, halakorik ez egon arren. Hala ere, sexu-indarkeriaren aurka agertzen dira, eta badakite neskak gauz ateratzeko beldur direla edo edarietan norbaitek substantziak botako dizkien beldur direla. Gainera, taldeko sexu-erasoei buruzko gogoeta egiten dute, eta uste dute heziketa faltagatik edo “burutik gaizki daudelako” gertatzen direla.

Mutilen ustez, gizarteak presioa egiten du, eta garrantzitsua iruditzen zaie mutilak inplikatzeko, jarrera desegokiren bat ikusten dutenean lagun batek hori argi esatea. Maskulinitate hegemoniko hori “harropuzkeriaz jokatzearekin” identifikatzen dute, “hori egiteagatik gizonago direla pentsatzen dute”.

**“Inork ez du baztertuta sentitu nahi, inork ez du kritikatu izan nahi edo zokoratuta egon nahi”.**

Mutil nerabea

**“Zure inguruko norbaiti gertatzen zaion arte ez zara jabetzen”.**

Mutil nerabea

**“Adingabeen artean, ez dira erasoak kezka gehien sortzen dutenak, ez baitira hainbeste, baizik eta WhatsAppeko mutilen taldeetan egiten dituzten txantxak”.**

Genero-indarkerian aditua

### **2.3. Mundu digitala**

Mundu digitalari buruzko hausnarketa egitea nahitaezkoa da nerabeak inplikatzeko dituen ezein hausnarketatan. Bereiz aztertzen badugu ere, horrek ez du esan nahi esfera digitala eta analogikoa bereizita daudenik. Mundu digitalean bizi duguna mundu fisikoan gertatzen denaren isla da. Ez dago hesirik, ezin dugu gure bizitza bi alderdi horien artean bereizi, eta haur eta nerabeen kasuan ere gauza bera gertatzen da.

Ingurune digitala honela banatu dezakegu: modu pasiboagoan kontsumitzen diren edukiak eta nerabeen arteko interakzioak (edukiak barne). Interneten barrena dabiltzan diskurtsoak, minutu eta ordu gutxitan biral egiten direnak, sartzen dira hemen.

Horren adibide dira une jakin batzuetan sarean izugarri zabaltzen diren bideoak, *memeak*, *stickerrak* eta antzekoak, batzuetan albiste edo gertaera jakin batzuekiko erantzunak izaten direnak. Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa ezagutzen duten galdetu zitzaientean, nerabeek honela identifikatuta zuten: “kontratuaren legea, papera sinatzearena, onespina ematea eskatzen duena”. Kontratu horiek hainbat kanal eta sare sozialetatik iritsi zitzaizkiela diote; kasuren batean, mutil batek, kezkatuta, kontratu hori erabili zuen.

Hain zuzen ere, lege horrek sortutako polemika gai konplexua da, eta azterketa eta lanketa behar ditu, zigorretan eragindako aldaketen ondorioak ulertzeko ez ezik, barnean hartzen dituen prebentzio-, detekzio- eta arreta-neurriak ulertzeko ere. Hala ere, lege-testuari buruzko eztabaida edo konfrontazio hori guztia “kontratuaren legea” esanez laburbildu zuten nerabeek, eta sareetan kontratuaren benetako eredu bat zabaldu zen.

Erreferentzia argia da hori mezuak nola iristen zaizkien eta sare sozialak albisteen informazio-iturri direla ikusteko. Alde horretatik, nerabeek adierazi dute ez

dietela kontu ofizialei edo instituzionalei edo helduen kontuei jarraitzen, baizik eta gai horiei buruz hitz egiten duten *influencer* edo jende ezagunaren kontuei.

Hemen sartzen dira *fast-food* (janari lasterra) edo hanburgesa moduko diskurtsoak, mezu azkarrak, emozionalki kargatuak eta zabaltzeko errazak direnak, sinpleak direlako eta atzean ez dagoelako justifikazio edo ebidentzia handirik.<sup>7</sup> Diskurtso horiek haur eta nerabe guztiek kontsumitzen dituzte, azken horiek, bereziki. Horren aurrean, informazio fidagarria eta kalitatezkoa eman behar da, ebidentzian oinarrituta dagoena eta nerabeek erabili ohi duten formatu batean; nerabezaroko berezko hizkuntza digital hori erabili behar da, bideo laburrak eginez, memeen eta stickerren bidez. Hala ere, familian, ikasgelan eta erakundeetan heziketa sakonagoa eskaini behar da. Baina heziketa edo informazio-emate horrek espazio horietara ere iritsi behar du.

Pornografiaridagokionez, literaturarik gaurkotuenak, pornografiak nerabezaroari nola eragiten dion ere aztertu duenak, gai horri buruzko funtsezko ideiak biltzen ditu:

- » Erotika eta afektibitatea pobretzea.
- » Emakumeen gorputzen estigmatizazioa eta kosifikazioa, plazer objektu gisa hartuta.
- » Kontrazepzio-metodorik ez erabiltzea.
- » Onespenik eza edo gizonen onespina eskatzeari uko egitea.
- » Sexu-jarraibideak ematea, desioari eta naturaltasunari bide eman gabe.
- » Indarkeria desio gisa edo sexu-praktika gisa txertatzea.
- » Rol desorekatuak ezartzea: menderatzailea (mutilak)-menderatua (neskak).

<sup>7</sup> Zabalgaitia, 2022. "Retóricas del meme masculinista. Universidad digital y antifeminismo en tiempos de pandemia". *Mitologías hoy*, 25. 68-90. or.

**“Tiktok-en gai horri buruzko hiru minutuko bideo bat dagoela ikusten baduzu, partekatu egiten duzu”.**

Neska nerabea

**“Beno, badakizue pornoa kenduko dutela”.**

Mutil nerabea

**“Banakako nahiz taldeko sexu-eraso baten aurrean gaudenean, deigarria da salatuak izan diren jokabide oldarkorren antzeko jokabideak erakusten dituzten bideo pornografikoak ikustea beren mugikorretan”.**

Segurtasun Indar eta Kidegoak

**“Adierazle bat da, baina ez du berez azaltzen sexu-indarkeriaren gorakada”.**

Osasunaren esparruko profesionala

Gainera, esan behar da pornografiaren kontsumo hori gero eta zabalduago dagoela sare sozialetan eta mezularitza-aplikazioetan, bai eta norberak ekoiztiko pornografia deritzoguna ere. Adituak kezkatuta agertzen dira horrelakoen aurrean, bide eta talde horien bidez sexu-indarkeria nola hutsaltzen den eta nola normalizatzen den ikusita. Alde horretatik, erasotzaileen mugikorretako eduki pornografikoek egindako delituaren antza izaten dutela adierazi dute. Aldi berean, analisi kuantitatiboak alde batera utzita, deigarria da horren inguruko ezkutuko eredu bat egotea jasandako indarkerietan.

Pornografiak eragina izan badezake ere, ez dugu ahaztu behar sexu-indarkeria eta sexualitatearen eraikuntza ez daudela gai bakar batekin lotuta. Literaturaren berrikuspenak adierazten du lotura dagoela pornografiaren eta sexu-indarkeriaren artean, baina ez dago argi, eta gehiago ikertu behar da.<sup>8</sup> Emakumearen kosifikazioarekin, hierarkia sexualekin eta abarrekin lotu daiteke, baina beste artikulua batzuetan ez da horrelako ebidentziarik aurkitu.

Alde horretatik, Fiskaltzaren Memorian islatutako kezkei buruz ere hausnartu daiteke, ez bakarrik 2022ko ekitaldiari dagozkionetan, baita aurreko urteetakoetan ere.<sup>9</sup> Sexu-indarkeria fenomeno konplexua dela aurreikusten badu ere, kezka sorrarazten du “sexu-harreman normalen kontzeptuaren arinkeria eragiteak” bai heziketa etiko-sexualik ez izateak eta bai eduki pornografiko desagokiak ikusteko aukera izateak ere.<sup>10</sup>

8 Mestre-Bach, G., Villena-Mora, A., Chiclana-Actis, C. (2023). *Pornography Use and Violence: A Systematic Review of the Last 20 Years, Trauma, Violence & Abuse*. [ **ikusi hemen** ]

9 Fiskaltza (2023). 2022ko jarduerari buruzko Fiskaltzaren Memoria.

10 Ildo horretan mintzatu dira Murtzia, Badajoz, Bartzelona, Huelva, Huesca, Ourense, Balear Uharteak, Cáceres, Madril eta Sevillako adingabeen sekzioak.

### 3. Onespena funtsezko elementu gisa

#### 3.1. Onespenaren kontzeptua

Emakumeen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari aurrea hartzeari eta horren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Istanbulgo Hitzarmena) honako hau jasotzen du 36.2 artikuluan: “Onespena borondatez eman behar da, pertsonaren nahiaren adierazpen gisa, inguruko baldintzen testuinguruan aintzat hartuta, betiere. Horrek esan nahi du onespena baliozkoa izateko beharrezkoa dela (i) beste pertsonarekiko egoera aske eta berdin batetik abiatzea; (ii) borondatezkoa izatea askatasun-egoera horren barruan, eta (iii) sexu-jarduera horren inguruko inguruabarrei erreparatzea, aldatu egin baitaitezke, eta, horren ondorioz, onespena ere bai.

Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak onespenari eta hori adierazteko moduari buruz egindako erreformak ildo horren arabera egokitu nahi duela dirudi, eta honela jasotzen da onespenari buruzko idazketa 178.1 artikuluan: “Kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, pertsonaren borondatea argi eta garbi adierazten duten egintzen bidez askatasunez adierazten denean soilik ulertuko da onespena ematen dela”.

Izan ere, Europan, sexu-indarkeriaren aurkako zigorra askotarikoa da. Aukeratutako formula edozein dela ere, onespenaren kontzeptua eta inguratzen duen guztia behar bezala zehaztu eta azaldu behar da. Horrela, jakin behar dugu ez dagoela onespena emateko modu bakarra, eta jakin behar dugu zer esan nahi duen onespena askatasunez emateak eta zer inguruabarrek eragiten duten onespena emateko aukera bera ere.

Jakina, onespena egiaztatzea ez da onespen hori ematen duen pertsonaren erantzukizuna; izan ere, beste alderdiak ere badu onespena lortzeko erantzukizuna, bai eta onespen horren inguruabarrak eta askatasuna ulertzeko erantzukizuna ere. Jasotzen duenak ere urra dezake.

**“Pertsona batekin egoteagatik ez daukazu zertan egin, eta kitto”.**

Neska nerabea

**“Onespena berdintasunezko harreman batetik abiatzen da, erlazio simetriko batetik”.**

Justiziaren esparruko profesionala

**“Onespena zera da, egiten uzten duzuna eta uzten ez duzuna. Ez zer egin nahi duzun eta zer ez, batzuek onespena ematen dutelako eta ez dutelako egin nahi, eta beste batzuek, alderantziz”.**

Mutil nerabea

Horrela, kontua ez da onespena ematen duenak argi eta garbi adierazi behar duela, bestea nahastu gabe.<sup>11</sup> Onespena aditzetik eta ulertzetik ere abiatzen da, hitzezko komunikazioaren nahiz hitzezkoa ez den komunikazioaren bidez; izan ere, Zigor Kodeko 178.1 artikulua pertsonaren borondatea argi adierazten duten “egintzak” aipatzen ditu baita ere. Hori guztia, egintza hori gertatzen den testuingurua eta inguruabarrak alde batera utzi gabe.

Gai hau kontsultatu diegun neska-mutilek onespenak haientzat zer esan nahi duen hausnartu dute baita ere. Bat datoz baimen bat dela esatean, eta bereizten dituzte askatasun eza, beldurra, baldintzatzailerak, zaurgarritasunak eta abar dauden egoerak. Sexu-indarkeriaren kontzeptuarekin lotuta dago baita ere. Oro har, zehaztasun handiagoa eskatzen dute jasotzen dituzten azalpenetan, adibide zehatzak eskatzen dituzte, baita praktikoak ere, sexu-indarkeria zer den argi gera dadin, ondo baitakite ez direla bortxaketak bakarrik, eta arriskuak bereizten jakin behar dela.

### **3.2. Onespenaren legezko adina**

2011/93/EB Zuzentarauak ezartzen du sexu-onespenaren adina honako hau dela: “Estatuko Zuzenbidearekin bat etorritik, adingabe batekin sexu-ekintzak egitea debekatuta dagoen adinaren azpikoa”.

Espanian, Zigor Kodea behin baino gehiagotan aldatu da gai horri dagokionez. 1848an, 12 urtera aldatu zen adin hori, eta 1999ko erreforman, berriz, 13 urtera igo zen.

2007an, Haurren Eskubideen Batzordeak Espainiari gomendatu zion “sexu-onespenaren adina igotzeko aukera aintzat hartzea, Protokolo Fakultatiboak barnean hartutako delituen aurka babes handiagoa emateko”. 2015ean, Zigor

---

11 Pérez, Y. (2016). “Consentimiento sexual: Un análisis con perspectiva de género”.

Kodea erreformatu zen, eta 13 urtetik 16 urtera bitartean ezarri zen adin hori; horren ondorioz, adin-tarte horretako kasuen salaketak ugartu ziren.<sup>12</sup>

16 urtetik 17 urtera bitarteko nerabeak ere babes penal bereziaren babespean daude, baina kasu jakin batzuetara mugatzen da, besteak beste: adinagatiko zaugarritasuna, egoera jakin batzuez baliatzea, hala nola elkarbizitzaz edo ahaidetasunaz, nagusitasunezko egoera aitortua baliatuta egindako engainua edo abusua, etab.

### **3.3. Erantzukizun penaletik salbuestea - Romeo eta Julieta klausula**

Bada erantzukizun penaletik salbuesten duen egoera bat, eta egokia da nerabegaroko sexu-indarkeriari buruz hitz egiteko. Zigor Kodeak<sup>13</sup> ezartzen duenez, “hamasei urte baino gutxiagoko adingabeak onespena askatasunez emateak erantzukizun penaletik salbuetsiko du kapitulu honetan ezarritako delituengatik, egilea adingabearen pertsona hurbil bat denean, adinagatik eta garapen edo heldutasun-mailagatik”.

16 urtetik beherako pertsonak, oro har, ez dute sexu-harremanak onesteko gaitasunik. Salbuespen gisa, horretarako heldutasun nahikoa dutenean eta beren adina eta garapen fisikoaren eta psikologikoaren maila harremanak dituzten pertsonaren adinetik hurbil daudenean onespena eman dezaketela jotzen da. Horregatik, inguruabar horietan, 183 bis artikulua erantzukizun penaletik salbuesten du. Salbuespen hori ez da aplikatzen indarkeria, larderia, nagusitasun-edo zaugarritasun-abusua erabili bada, ez eta biktima zentzurik gabe bazegoen, bere borondatea deuseztatuta bazuen edo bere adimen-egoeraz abusatu bazen.

---

12 Estatuko Fiskaltza Nagusia (2017). 1/2017 Zirkularra, ekainaren 6koa, Zigor Kodearen 183 quater artikulua interpretazioari buruzkoa.

13 Salbuespen-klausula hori Zigor Kodearen egungo 181 bis artikuluan jasotzen da, eta aurreko 183 quater artikuluan ere jasotzen zen.

Onespena emateko adina 13 urtetik 16 urtera igo zenean, agerian geratu zen 16 urtetik beherako pertsonak aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarretan izandako sexu-harremanak arautzeko beharra, eta, horrela, garrantzi handia eman zitzaion nerabeen onesteko ahalmenari.<sup>14</sup>

Izan ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiak, azaroaren 16ko 9/2011 Zirkularrean, adingabeen erreformaren arloan Fiskaltzaren jarduera-unitate espezializaturako irizpideei buruzkoan, horrelako salbuespen-irizpideak edo klausulak defendatzen zituen, “tipikoak izan arren, babestutako ondasun juridikoa arriskuan jartzen ez duten jokabideen bereizi gabeko zigorrak saihesteko”.

Horrela jasotzen du baita ere Haurren Eskubideen Batzordeak: “Parte hartzen duten estatuek kontuan izan behar dute oreka mantendu behar dela babesaren eta garapen ebolutiboaren artean, eta beharrezkoa dela gutxieneko adin onargarri bat finkatzea sexu-onespenerako. Estatuek saihestu egin behar dute adin bertsuko nerabeak kriminalizatzea, objektiboki onetsitako eta esplotazio-helbururik gabeko sexu-harremanak edukitzeagatik.”<sup>15</sup>

---

14 Erantzukizun penala kentzeko baldintzen erregulazio hori Kontseilu Fiskalak iradoki zuen Zigor Kodearen erreforma-aurreproiektuari 2013ko urtarrilaren 8an egindako txostenean.

15 Haurren Eskubideen Batzordea (2016). 20. ohar orokorra, haurrak nerabezaroan dituen eskubideen eraginkortasunari buruzkoa.



## 4. **Sexu-indarkeria: kontzeptua eta magnitudea**

### 4.1. **Kontzeptua**

Nerabezaroan sexu-indarkeriari eragiten dioten aldagaiak aztertzeko xedez, mahai gainean jarri behar dugu zer den sexu-indarkeria, zer testuingurutan kokatzen den eta zer magnitude duen.

**Sexu-indarkeria onespentik gabeko edozein sexu-ekintza da, sexu-askatasunaren aurkako eraso, eta hainbat forma har ditzake.** Zergatik? Indarkeria ez delako mutur batean edo bestean kokatzen, ez dagoelako testuingurutik eta kasuistikatik bereizita. Izan ere, nahiz eta ezaugarri jakin batzuk izan ditzakeen eta ezaugarri horiek identifikatzean aurre egiten lagunduko diguten, indarkeria-kasu bakoitza bakarra da. Indarkeriak, sexu-indarkeriak barne, joera-aldaketak eta bilakaerak izaten ditu. Datuen arabera, sexu-indarkeriak batez ere neskei eragiten die, haurtzaroan, nerabezaroan nahiz helduaroan.

Testuingurutik ihes egitea ezinezkoa denez, esan dezakegu oraindik bide luzea dugula egiteko, matxismoa eta sinesmen eta jokabide sexistak oraindik ere errotuta baitaude gure kulturaren. Horrelakoek sexu-indarkeria normalizatzen edo justifikatzen laguntzen dute.

Sexu-indarkeria kasu batek izan behar duen eskema irmoak zehaztu du beti sexu-indarkeria, erasotzailearen indarraren edo larderiaren erabilera-mailaren eta biktimaren erresistentzia-mailaren arabekoak. Azken urteetako zenbait kasu mediatikok errealitate horren aurrean jartzen gaituzte, eta errealitate horrek funtsezko 3 auresuposizio dakartza, gertatzen den adina edozein dela ere:

1. Ez dago erasorik edo kalterik, indarkeria fisikorik ez badago.
2. Ez dago erasorik erresistentziarik ez badago.
3. Erresistentziarik ez badago, onespentia dago.

**“Adingabeen sexu-delituen kopuruak gora egin duen une berean, halaber, genero-indarkeriari eta sexu-indarkeriari buruzko diskurtso negazionistak hedatu dira, eta horrek erantzun jakin bat sortu du mutil adingabeen artean eta haien taldean”.**

Justiziaren esparruko profesionala

3 puntu horiek biktimaren ganean jartzen dute pisua, haren zauri eta orbain fisiko, emozional edo psikologikoen ganean, eta ez dute sexu-indarkeriaren dimentsioak eta ezaugarriak ulertzen laguntzen.

Hala, bada, biktima erruduntzat jotzen da, eta, aldi berean, erasotzailearen jarduera justifikatzen du. Horregatik, sexu-indarkeria identifikatzeak eta nondik datorren eta haren askotariko aurpegiak ezagutzeak aukera eman die biktimei beren burua halakotzat aitortzeko. Hala ere, badirudi indarkeriaren biktimek ere profil bat izan behar dutela, eta horrek nerabeei eragiten die, eraso bat aitortzeko orduan. Haurrek eta nerabeek ez dituzte beren buruak ez biktimatzat ez erasotzailatzat jotzen zenbait indarkeria motatan.<sup>16</sup> Hala ere, identifikazio horrek bi alde ditu: profilari egokitzuz gero, etiketa hori betiko gera daiteke, eta, biktima diren nerabeen kasuan, jasandako erasoak baino kalte handiagoa egin diezaieke horrek.

Testuinguruaren beste alde bat sexualitatearen bizipena da, tradizionalki intimitatera, sekretismora eta tabura mugatuta egon dena. Horrek eragina du sexualitateaz pertsonaren ikuspuntu natural eta intrintsekotik hitz egin ahal izateko, eta zera eragin dezake, gertatzen diren edo gerta daitezkeen indarkeriazko gertakariak berriro ere isilaraztea eta intimitaterako gordetzea.

Alde horretatik, premisa faltsu askoren ondorioz, indarkeriaren larritasuna eta ezaugarriak diluitu egiten dira, eta zailagoa izaten da identifikatzea:

1. Modu probokatzailean janztea.
2. Goizaldean kalean bakarrik ibiltzea.
3. Ezezko baten atzean baiezko bat dago.
4. Alkohola edo drogak, onespeneren zati gisa.
5. Mutilek sexu-sen saihestezina dute, eta hori gizarte-agindu bati lotuta dago, plazer jakin bati baino gehiago.
6. Baliteke biktimaren kontakizuna egia ez izatea.

---

16 Save the Children (2021). Ez da maitasuna: genero-indarkeria nerabezeroan.

7. Erasotzaileak justifikatzea, jokabidea minimizatuz.
8. Sexu-erasoak egiten dituztenak munstroak dira edo buruko gaixotasuna dute.

## **4.2. Magnitudea**

Gai honetan esku hartzen duten profesionalen kasu gehienak hiru mota nagusitan biltzen dira: haurtzaroan jasandako sexu-indarkeria, aisialdi-inguruneekin lotutako sexu-indarkeria eta bikote heterosexualaren (egonkorra edo ez) barruko indarkeria. Lehen agertokia da ohikoena: haurtzaroan jasandako sexu-indarkeria, geroago salatzen dena; erasotzailea familia-inguruneko eta etxeko norbait izan ohi da, eta gero eta gehiagotan gertatzen da amaren bikotekidea izatea erasotzailea.

Parekoen arteko sexu-indarkeria da profesionalek ikusten duten sexu-indarkeriaren beste adierazpen bat. Aldez aurretik indarkeria erabiltzeko asmorik ez izan arren, indarkeria mota hauetan askotan imitazioz, esplorazioz edo jakin-minez eragiten da indarkeria. Oro har, ingurune ezagunean gertatzen da: lehengusu-lehengusinak, auzokideak, anai-arrebak, eta “jolasten aritzearen” premisa erabiltzen dute.

Egoera horiek eta ikerketaren xedea kontuan hartuta, honako galdera hau egin behar dugu: zein da sexu-indarkeriaren magnitudea? Eta nerabeek egindako sexu-indarkeriarena?

Beste kasu askotan bezala, parekoen arteko sexu-indarkeriaren benetako magnitudea ezagutzea oztopoz betetako lasterketa bat da. Bereizketa hori adinaren arabera egiten duen estatistikarik ez dago, eta kasu guztiak ez dira ezagutzen edo, ezagututa ere, ez dira jakinarazten.

### **Biktimak**

Sexu-delituen salaketei buruzko estatistiketan, 2022an, sexu-askatasunaren aurkako 18.731 delitu salatu ziren, eta horietako 8.337 salaketatan biktimak 18 urtetik beherakoak ziren (% 44,5).<sup>17</sup> Adinaren arabera banaketari erreparatuz gero:


<b>Adina</b>	<b>Ehunekoa</b>	<b>Kopurua</b>
Ezezaguna	% 0,5	89
0-18 urte (guztira)	% 44,5	8.337
0-13 urte	% 20,6	3.857
14-17 urte	% 23,9	4.480
18-30 urte	% 31,2	5.841
31-40 urte	% 11,2	2.104
41-64 urte	% 11,7	2.200
65 urte edo gehiago	% 0,9	160

0 urtetik 18 urtera arteko eta sexuaren arabera datuei erreparatuz gero, honako hau ikus daiteke:

<b>Adin-tartea</b>	<b>Neskak</b>	<b>Mutilak</b>	<b>Ezezaguna</b>	<b>Guztira</b>
0-13 urte	2.987	864	6	3.857
14-17 urte	3.827	651	2	4.480

<sup>17</sup> Iturria: Barne Ministerioa, Kriminalitatearen atari estatistikoa.

Autonomia-erkidegoko datuei dagokienez, Andaluzia, Katalunia, Madrilgo Erkidegoa eta Valentziako Erkidegoa dira kaltetuenak:



Teknologiak erabiliz egindako sexu-delituei dagokienez, iturri berak adierazten du 2022an aurkeztutako salaketa guztietatik (1.135) % 84k haur edo nerabe bat zutela biktima. Azken horietatik, 616 neskenak ziren, eta 334 mutilenak.

Laburbilduz, biktimei buruzko datuek adierazten digute sexu-delituen salaketen % 44,5 haurrei eta nerabeei dagokiela, eta horietatik % 81,7 neskei dagokiela; ehuneko hori % 64,57 da eremu digitalean. Informazio horrek berretsi egiten du biktima gehienak neskak direla eta haur edo nerabe neska izatea oso arrisku-faktore garrantzitsua dela sexu-indarkerian.


### **Erasotzaileak**

Erasotzaileei buruzko datuak aztertzeko, hiru alderdi aztertu ditugu: (i) kondena kopuruaren eta delitu-moten arteko erlazioa nerabeetan eta helduetan; (ii) kondenatutako nerabeak, sexuaren eta adinaren arabera; eta (iii) nerabeek egindako delituak, adinaren arabera. 18 urte edo gehiagoko pertsonak eta 14 urtetik 17 urtera bitartekoek 2022an egindako sexu-delituak aztertzen baditugu:<sup>18</sup>

	<b>Guztira</b>	<b>Helduak</b>	<b>Nerabeak</b>
<b>Gizakien salerosketa sexu-esplotaziorako</b>		3.835	636
<b>Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitua</b>		50	0
		3.785	636
Sexu-erasoak (bortxaketa barne)		508	31
Sexu-abusuak		1.458	134
Sexu-abusuak eta -erasoak 16 urtetik beherakoei		762	389
Sexu-jazarpena		81	2
Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa		377	19
Prostituzioa eta adingabeak galbidean jartzea		599	61

Sexu-delituengatik kondenatutako pertsonen gainean Estatistikako Institutu Nazionalak egindako estatistikari erreparatuz gero, ikusten da 2022an 3.201 heldu zigortu zirela eta 18 urtetik beherako 501 pertsona zigortu zirela. Bi kasuetan ere, % 97 gizonak ziren.

18 Iturria: Kondenatuen estatistika: helduak / Kondenatuen estatistika: adingabeak (ECA/ECM), 2022.




Nerabeek egindako sexu-delituengatiko kondenei dagokienez, estatistikak argi eta garbi erakusten ditu sexuaren eta adinaren arabera aldeak, eta hor ere argia da mutilen nagusitasuna:

<i>Adina</i>	<i>Neska nerabeak</i>	<i>Mutil nerabeak</i>	<i>Guztira</i>
Guztira (18 urtetik behera)	15	486	501
14 urte	6	124	130
15 urte	4	119	123
16 urte	3	128	131
17 urte	2	115	117

Hala ere, adin desberdinekin gurutzatuta sexu-delituak soilik aztertzen direnan, ikus daiteke egiten duten delitu-motak eragiten dituela desberdintasunak:

	14 urte	15 urte	16 urte	17 urte	Guztira
Sexu-erasoak (bortxaketa barne)	6	5	7	13	31
Sexu-abusuak	22	22	45	45	134
Sexu-abusuak eta -erasoak 16 urtetik beherakoei	113	113	90	73	389
Sexu-jazarpena	0	0	0	2	2
Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa	8	5	4	2	19
Prostituzioa eta adingabeak galbidean jartzea	12	20	17	12	61
<b>Sexu-delituak sexualak guztira</b>	<b>161</b>	<b>165</b>	<b>163</b>	<b>147</b>	<b>636</b>

Autonomia-erkidegoei dagokienez, Andaluzia, Katalunia eta Valentziako Erkidegoa dira kaltetuenak:





Ziberdelitu sexualei dagokienez, Barne Ministerioak datu bereziak ematen ditu, baina gertakari horiengatik atxilotu eta ikertutakoei dagokienez soilik. Atxilotutako edo ikertutako 735 pertsonetatik, % 11k 18 urte baino gutxiago zituen (76 mutil eta 5 neska).

Ikus dezakegunez, datuek argi erakusten dute erasotzaileek sexu-indarkeria horretan duten errealitatea:

- » Ia erasotzaile guztiak mutilak dira, % 97.
- » Deliturik ohikoenak 16 urtetik beherako pertsonen aurkako abusuak eta erasoak dira, eta aztertutako adin-tarteengatik azal daiteke hori.
- » Nerabeek egindako sexu-delituak adin-tarte guztietan banatzen dira (14 eta 17 urte bitartean).
- » Badirudi zailtasun handiagoa dagoela sexu-delitu zibernetikoak ikertzeko.

---

## **5. Nerabezaroa eta sexu-indarkeria**

### **5.1. Aztoramendu soziala eta komunikabideak**

Azken urteotan, nabarmen handitu da nerabeek egindako sexu-erasoen oihartzun mediatikoa. Areagotu egin dira eraso horiek? Bai, artatzen diren kasuei dagokienez, hau da, salatzen diren kasuei dagokienez.

Profesionalek adierazten dutenez, askoz kasu gehiagori egin behar diete aurre, eta kopuru hori urtetik urtera handitzen ari da. Hala ere, adierazi dute ezin dutela baieztatu lehenago horrelako kasuak ez zeudenik; kontua da gaur egun gehiago salatzen direla. Beraz, ezin dugu baieztatu igoera hori kasu berrien ondorio denik soilik. Hala ere, kezka orokorra sortu du egindako delituen gorakadak eta larritasunak.

Gizartean sortutako aztoramenduak gai honi merezi duen garrantzia ematera bultzatu behar gaitu; arazoa hor dagoela aitortu behar dugu, larria dela eta ebidentziatik eta, jakina, haurtzaroaren eta nerabezaroaren ikuspegitik heldu behar zaio.

Hala, bada, ulertu behar dugu aurrera egindela gai honen aurreko kontzientziazioan eta komunikabideetan kasu horiek duten hedapenean, biktimek sexu-erasoak detektatu eta laguntza eskatu ahal izan dezaten. Hala ere, bada kigu oraindik biktima askok ez dutela salatzen. Alde batetik, badirudi kontraesana dagoela baliabideetara jotzen duten eta sexu-indarkeria hautematen dakiten neska nerabeen artean eta beren esperientzia indarkeriazko ekintza gisa identifikatzen ez duten nesken artean. Bestalde, mesfidantza handia sortu da, ez bakarrik sistemak ematen duen erantzunaren aurrean (judiziala, babesekoa eta arretakoa), baita gizarte-ingurunearen erantzunaren aurrean ere.

Alde horretatik, nerabeei arreta emateko sistemak mesfidantza hori ulertzen du; izan ere, salatzea edo ez salatzea gero datorrenaren mende dago, eta horrek

haien kontroletik ihes egiten du. Horrekin lotuta, nerabeek adierazi ziguten gogorragoa iruditzen zitzaiela “biktima” izatearen etiketari aurre egitea “puta” izatearen etiketari aurre egitea baino.

Bestalde, mutilei dagokienez, kezka adierazten dute baita ere: “Badirudi orain ez garela pertsonak, bortxatzaileak baizik”.

Aztoramendu soziala edo delituen pertzepzio soziala baino areago joan behar dugu, ez baitatoz beti bat errealitatearekin. Aldiz, benetako argazkia bilatu behar dugu, eta arazoa konpontzen laguntzeko moduan esku hartu. Alde horretatik, beharrezkoa da hausnartzea nola jokatu behar den sexu-delituen kasuetan biktimak eta erasotzaileak haurrak edo nerabeak direnean. Ba al dago sentsazionalismorik kasu horien atzean? Ba al dago profesionalen hausnarketa sosegaturik kasu horien atzean? Berdin tratatzen al da kasu bat, erantzulea bat edo bestea izan?

Bereziki delikatua da sexu-indarkeriako kasuen tratamendu mediatikoa, are gehiago haurtzaroaren eta nerabezaroaren aldagaiak eta taldeko sexu-erasoak gurutzatzen direnean. Haurren eta nerabeen eskubideen eta generoaren ikuspegiak –sexu-indarkeriaren errealitatea ezagututa– funtsezkoak dira halako izu bat sor ez dadin, atzean zer dagoen hausnartzea eragozten baitu horrek. Haurren eta nerabeen kasuan, indarkeriaren aurrean haurrak eta nerabeak erabat babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak eta ikus-entzunezko komunikazioari buruzko uztailaren 7ko 13/2022 Lege Orokorrak haurrei eta nerabeei buruzko edukiak behar bezala babesteko eta tratatzeko neurriak jasotzen dituzte.

Horregatik, garrantzitsua da gogoratzea komunikabideek oso funtzio sozial garrantzitsua bete behar dutela, errealitatea beharrezkoa den mailan horretan ezagutaraziz, herritarrek gizarte gisa aurre egin behar diegun arazoei buruzko informazioa eskuratu dezaten.

Neska-mutilei ez zaie arrotza egiten komunikabideetako informazio hori; izan ere, bide horretatik jasotzen dute sexu-indarkeriako kasuen berri, eta ez hainbeste

**“Sexu-indarkeria kasu beraren aurrean, bi titular desberdinek erasotzaileenganako gaitzespena edo pena eragin ditzakete, eta kasu beraren aurrean gaude, baina iritzi publiko desberdina sortzen du”.**

Justiziaren esparruko profesionala

gertuko kasuetatik; hala ere, oro har, esaten dute inguruko norbaiti gertatzen ez zaion arte ez direla arazoaz benetan jabetzen.

Azken batean, aztoramendu soziala komunikabideetan presentzia handiagoa izatearen ondorio izan daiteke, komunikatzeko moduaren ondorio, gizartearen kontzientziazio edo prestakuntza handiagoaren ondorio, eta abar. Horren guztiaren ondorioz, ezagutzera emandako kasuek agerian utz dezakete ez direla gertaera bakartuak. Hala ere, erantzukizun partekatu batetik, geure buruari galdetu behar diogu zer rol jokatzen ari garen eta aztoramendu sozialak harago ikusten laguntzen digun.

## **5.2. Arrisku-faktoreak**

Arrisku- eta babes-faktoreak eraso bat egitean edo pairatzean eragina izan dezaketen edo erasoei aurrea hartzen lagundu dezaketen aldagai edo seinale pertsonalak, sozialak eta ingurukoak dira. Erabakigarriak ez diren arren, sexu-indarkeria detektatzen lagundu behar diguten seinaleak dira, baina baita indarkeriari aurrea hartzen eta gertatzen denean esku hartzen ere. Bestela, politika publikoak eta programak proposamen orokorrak baino ez dira izango, eta ez dute erreparazio edo prebentzio handiagorik ekarriko. Profesionalek erasotzailearen edo biktimaren profil zehatzik ez dagoela esaten duten arren, zenbait ezaugarri identifika daitezke:

- **Neska izatea, nahiz eta eremu digitalean parekatu egiten den**
  - » Haur edo nerabe neska izateak sexu-indarkeria jasateko aukerak areagotzen ditu.
  - » Haurtzaroan eta nerabezaroan sexu-askatasunaren aurkako delituengatik egiten diren salaketa gehienak neskei dagozkie.

- » Ingurune digitaleko indarkeriaren kasuan, parekatuago dago mutilen eta nesken artean.

- **Teknologiak**

- » Indarkeriaren normalizazioa, sexu-indarkeria barne.
- » Sareetan garrantzitsua izatea kostatzen da.
- » Eduki eta erreferente desegokiekiko nahi gabeko esposizioa.
- » Edukiak biral egiteko arriskua.
- » Gai garrantzitsuei buruzko hausnarketarik eza; horren ordez, berehalakotasuna lehenesten da.

- **Gurasoen zainketarik gabeko haurrak, bereziki zaugarriak**

- » Babes-zentroetako hurrekin eta nerabeekin lotutako zaugarritasuna identifikatzen. Bai mutilek –babes-zentroetatik barneratze-zentroetara igaro daitezke– bai neskek askotariko sexu-indarkeriak pairatu ditzakete, sexu-esplotazioa eta esplotaziora bideratzeko pertsonen salerosketa barne.

- **Kultura matxista eta genero-desoreka**

- » Kultura eta gizarte patriarkala, generoan oinarritutako indarkeriak sostengatzen eta iraunarazten dituena.
- » Indarkeriaren legitimazioarekin lotutako mitoak, hala nola substantzien kontsumoaren bidez edo biktimaren probokazioa dela esanez justifikatzea onespena, etab.

- » Indarkeria, genero-rolak eta -estereotipoak normalizatzea, bideo-jokoen eta pornografiako edukien bidez.

- **Familia-eredua**

- » Hezkidetzari, berdintasunari, sexualitateari, onespeneri eta abarri buruzko nozioak aintzat hartzen ez dituzten familiak.
- » Indarkeria-egoerak bizi dituzten familiak.
- » Familia-haustura konplexuak.
- » Heziketa-modu horren aurrean bereziki jarrera itxia duten familiak edo oso arau zorrotzak dituztenak, bai eta mugarik edo araurik ez dutenak ere.

- **Indarkeriaren biktima izatea**

- » Edozein indarkeria motaren biktima izateak beste indarkeria mota batzuk jasateko aukera areagotu dezake, bai eta indarkeria hori eragiteko aukera ere. Hala ere, gainerako arrisku-faktoreetan bezala, garrantzitsua da jakitea aurrea hartzea posible dela, modu egokian lantzen badira, eta biktimei buruzko edozein estigmatizazio saihestu behar dugula.

- **Indarkeriarekiko zaurgarriagoak diren taldeak**

- » Haurrak eta nerabeak zaurgarriagoak dira edozein indarkeria motaren aurrean, eta, ikusi dugunez, neskak ere bai. Gainera, kontuan izan behar dugu beste talde zaurgarriago batzuk ere badaudela, adibidez, desgaitasuna duten pertsonak edo haur migratzaileak. Desgaitasuna

duten eta biktima diren haur eta nerabeen kasuan, 2,9 aldiz arrisku handiagoa dute sexu-indarkeria jasateko.<sup>19</sup>

- **Gizarte-abileziak**

- » Beste indarkeria mota batzuetan bezala, emozioen eta gatazken kudeaketarik eza, enpatia, atxikimendu seguruko eredurik eza, etab. aintzat hartu behar dira.
- » Indarkeriazko diskurtsoz betetako egungo testuinguruak eta indarkerian oinarritutako pornografiak afektibitatea baztertzen dute.

- **Sexualitatearen inguruko esperientzia negatiboak**

- » Sexu-harremanen hasiera edo sexualitatearen norberaren bizipena eta pertzepzioa ere (negatiboak badira edo indarkeria motaren baten eragina jasan badute, adibidez irain sexualak, presioa arlo sexualean, etab.) arrisku-faktoreak dira sexualitatearen eraikuntzan eta sexu-harremanen pertzepzioan.

- **Hipersexualizazioa**

- » Hipersexualizazioa arrisku-faktore gisa agertzen da, eta jokabide edo egoera jakin batzuk normalizatzea eragin dezake, indarkeria-egoeretatik bereiziz.

---

19 Nazio Batuen Erakundea (2012ko uztailak 12). Prentsa-oharra: *Children with disabilities more likely to face violence, says UN-backed study*. Hemendik hartua: [ **ikusi hemen** ]

- **Maskulinitate nagusi eta sozializatuaren eredia**

- » Hasieran ikusitakoaren ildotik, maskulinitate hegemonikoa eta gizonen sexualitatearen eraikuntza rol eta estereotipo batzuek baldintzatzen dituzte, eta, kasu batzuetan, indarkeria normalizatzaera eraman dezake horrek. Horregatik, parekoen taldea funtsezkoa da, arrisku-faktore zein babes-faktore izan baitaiteke. Arrisku-faktorea erasotzaile sexualen jokabidea normalizatzea izango litzateke, edo horien portaera onartzea, balentria bat egin izan balute bezala, eta ez delitu bat. Idealizazioaren eta zigorgabetasunaren nahasketa litzateke, parekoen taldearen erreakzioak zehazten duena. Hemen sartzen da baita ere eraso grabatzeko eta partekatzeko aukera.

- **Substantzien kontsumoa**

- » Badirudi substantzien kontsumoa profesionalek artatzen dituzten hainbat kasutan gertatzen dela, bai erasotzaileen bai biktimen aldetik. Gainera, kontuan izan behar dugu, substantzia motaren eta kontsumoaren arabera, indarkeriaren larritasunari eragin diezaiokela.

- **Afektibitate- eta sexu-hezkuntzarik eza**

- » Afektibitate- eta sexu-hezkuntzaren gabezia askotan azpimarratu izan da, pornografiaren hedapenarekin batera, eta faktore anitzeko arazo baten aurrean gauden arren, ezin da gabezia hori alde batera utzi. Gainera, beste kezka bat ere adierazten da, sexu-erasoa maskulinitatearen hastapen-erritu gisa jasotzen duena.



- **Diskurtso negazionistak**

- » Haur eta nerabe nesken aurkako sexu-indarkeria benetako arazoa dela eta genero-rol eta -estereotipoek markatutako gizartean oinarritzen dela ukatzeak erreakzio-prozesua eragiten du. Horrela, gaur egun bizi den polarizazioak nesken eta mutilen arteko polarizazioan eragiten du.

### **5.3. Sexu-indarkeriaren espazioak**

Indarkeriarik gabe bizitzea eta indarkeriatik babestea haurren eta nerabeen eskubidea da. Egungo legedian adierazten denaren ildotik, haurren eta nerabeen bizitzako eremu guztiek ingurune seguruak izan behar dute; zergatik? Indarkeria haurtzarora eta nerabezarora garatzen diren eremu guztietan gerta daitekeelako, berdin parekoen artean gertatzen dena eta sexu-indarkeria zein beste mota batekoa izan.

Nerabezaroaz ari garenean, afektibitate- eta sexu-harremanak izateko orduan bizikidetzarik edo pribatutasunik eza hartu behar dugu kontuan, eta, beraz, beste espazio batzuek garrantzia handiagoa hartzen dute.

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzaren azterlan baten arabera, sexu-indarkeria gertatzeko esparru ohikoenak festak eta jaialdiak dira.<sup>20</sup> 16 urtetik 34 urtera bitarteko tartean, bigarren tokian espazio publikoak daude (kaleak, parkeak, etab.), eta hirugarren tokian etxea dago. Hurrengo postuetan lantokia, eskolak eta unibertsitateak eta garraio publikoak daude.<sup>21</sup>

**“Plataformetan ikus daitezkeen bideo asko ez dira naturalak, ez dira... Sexu-erasoak dira, azken batean. Izan ere, normalizatu egiten ditugu, normalena hori dela pentsatuz”.**

Mutil nerabea

20 Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza (2018). Sexu-indarkeriaren pertzepzio soziala. 16 urtetik gorako 2.645 laguneko lagina.

21 Kontuan hartu behar da zein adin-tartetan galdetu den, ez baitago bereizita 16 urtetik 18 urtera bitartekoen tartea.

**“Parrandan atera den institutuko neska, edan egin duena eta bere lehen sexu-harremana izaten duena; hasieran nahi du, baina gero eraso bihurtzen da. Lehen berdin gertatzen zen, baina ez zen judizializatzen”.**

Auzitegi-medikua

Barne Ministerioaren arabera, espazio irekien kategoriak behera egin du, eta etxebizitzaren eta eranskinen kategoriak % 50 baino gehiago hartzen zuen 2022an.<sup>22</sup>

Jakina denez, sexu-abusu gehienak familia-ingurunean gertatzen dira.<sup>23</sup> Hala ere, parekoei arteko sexu-indarkeriaz ari garenean, logikoa dirudi gaueko aisialdia agertzea eremu garrantzitsuenen artean. Izan ere, kontsultatutako adituen ahotsekin bat etorrita, ohikoena etxea den arren, gaueko aisialdiak ere garrantzi handia du indarkeria mota horretan. Badirudi arriskua larriagotu egiten dela biktimak, gainera, substantziaren bat kontsumitu badu.

Hala ere, ingurune digitala indarkeria erabiltzeko espazio edo, hobeto esanda, kanalgisa ere ulertu behar dugu. Barne Ministerioaren txosten berak ohartarazten du “komunikabideetan” areagotu egin dela indarkeria mota hori, eta bigarren tokian daudela, etxebizitzaren ondoren. Izan ere, neskentzat bereziki, ingurune digitala konplexua eta aldatzeko zaila dela ulertzen da, eta horrek kezka handia sortzen du. Mutilen kasuan, sareak eremu matxista gisa identifikatzen dira, non sexu-erasoei edo biktimen erruduntasunari buruzko mitoak askotan agertzen zaizkien.

Sexualitatearen eraikuntzari buruzko aurreko atalei buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu horrek, eta ikusten da algoritmoek, edukiek eta horrelakoak sortzen dituztenek ere eragina izan dezaketela eraikuntza horretan.

Azken batean, haurtzaroa eta nerabezaroa garatzen diren ingurune guztiak seguruak izatea nahi badugu, ingurune guztiak zentzu zabalean balioetsi behar ditugu, ez bakarrik fisikoak, baita emozionalak, hezitzaileak, digitalak eta abar ere.

22 Barne Ministerioa (2022). Sexu Askatasunaren aurkako Delituei buruzko 2022ko txostena.

23 Save the Children (2023). Haurrek merezi duten justizia baten alde.

Edozein espazio ingurune seguru bihurtzeko, onartu behar da espazio bat bera ere ez dela berez segurua, baina denak seguruak izan daitezkeela eta izan behar dutela. Hori da modu bakarra balioesteko zer diagnostiko behar diren eta zer inguruetan, hala, ingurune horietako arriskuak ahalik eta gehien murriztu ahal izateko.

#### **5.4. Biktimak: jasandako erasotik harago**

Biktima nerabeez ari garenean, bada kontu bat, kontraesana sortu ohi duena. Oraindik ere kostatu egiten da sexu-indarkeria ezagutu eta aitortzea, nahiz eta aurrera egin den gai horrekin lotutako pentsamoldean eta sentsibilitatean. Neska batzuek sexu-indarkeria hautematen eta hainbat modutara kudeatzen dute, hala nola beren burua babestuz (janzkera, etxera itzultzeko ibilbideak), kontrolaren bidez (lagun edo familiakoei geolokalizazioa helaraziz) edota autodefentsa baliatuta, beldurraren menpe egongo gabe; baina badaude bestelako profilak ere. Profesionalekin aritzen diren biktimen arteko neska askok ez dute sexu-indarkeria aitortzen; ez dute jasan duten sexu-erasoa halakotzat identifikatzen.

Profesionalen iritziz, lehen-lehenik, sexu-indarkeria eta biktima kontzeptuak landu behar dira, bai eta errua eta lotsa ere, kasu gehienetan agertzen baitira. Biktimari babesa ematen diotenak emakumezkoak dira normalean, ama edo lagun bat askotan. Maiz, 16 urtetik gorakoak direnean, lagun batekin joaten dira, ez baitiote familiari gertatuaren berri eman nahi izaten.

Gainera, jasandako indarkeriaren eta biktimaren beraren arabera, erreakzioak ere desberdinak izaten dira, eta, horregatik, haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten profesionalek biktimak eta kontatuari edo deklarazioei buruzko espektatibak desmitifikatzeko eskatzen dute. Diote kontaketa ez dutela beti argi izaten, urduritasunak zeresan handia duela, noski, eta, gainera, kontuan hartu behar dela noiz kontaktzen duten ere, ez baita berdina eraso gertatu eta ordu batzuetara kontatu, edo egun batzuetara, edo handik hilabete batzuetara, edo urte batzuetara...

**“Grabatzea eta partekatzea mutilen ohiko jokabidea da, ez dute ezkututzen, aitzitik, arazorik gabe erakusten dute”.**

Segurtasun Indar eta Kidegoak

**”Erasotzailea eraikitzen eta biktima berreraikitzen ahalegintzea da kontua, bide guztiak erabiliz”.**

Justiziaren esparruko profesionala

**”Sare sozialek adingabeei egiten dieten kaltea izugarria da; badakite bideoak ezin direla suntsitu”.**

Osasunaren esparruko profesionala

Baliteke hasieran egindako kaltea ez onartzea, eta, denborak aurrera egin ahala eta jarraipena eginez, sintomak gero azaleratzea. Gehienak diote kalte nagusia psikologikoa dela, eta ez fisikoa. Askotarikoak dira sintomak, besteak beste, zefaleak, insomnia, norik bere burua zauritzea, elikadura-nahasmenduak edo suizidio-ahaleginak.

Bada funtsezkoa den beste kontu bat ere: sexu-erasoa sarean azaltzea, horrek berak kalte esponenzialki handitzen baitu; izan ere, konturatu egiten dira edukia nola zabaldu daitekeen eta desagerrarazteko zer zailtasun (edo kasik ezintasun) dituzten.

Nerabeentzat, oso garrantzitsua da ingurunearen inpaktua; sortuko den erreakzioaren beldur dira, errudun bihurtuko dituzten beldur, edota “puta”, “neska lizun” edo “neska errazaren” etiketen beldur... Horiek guztiak biktimaren kontra bihurtzen dira. Gainera, pisu astuna sentitzen dute gainean, askotan neskari egozten zaiolako erantzukizuna, argazki bat bidali duelako, edo modu batera jantzita zihoalako, edo garaiz gelditu ez duelako bestea. Haien argazki edo bideo intimo bat zabalduko balitz, argi ematen dute erantzuna: ez lirateke itzuliko eskolara, ez lirateke kalera irtengo, ez lukete inorekin hitz egingo.

Familiaren erantzuna ez da beti eta nahitaez enpatiazkoa, kontsolamendua ematekoa edo laguntzekoa. Agian egoera onartzeko zaila denez, lehen erantzuna “zeu arriskatu zara zeure burua erakutsiz” edo horrelakoren bat izan daiteke.

Biktimak jasan ditzakeen beldurraz, errundun sentimenduaz eta lotsaz jabetzen dira nerabeak, eta, horrexegatik egiten zaie horren zaila agian laguntza eskatzea. Laguntza eskatzeko, non eskatu jakin behar dute, eta informazio hori, gaur-gaurkoz, ez zaie argi eta garbi adierazi oraindik. Badaude zenbait zentro, telefono, hor dago eskola... Baina zehatz jakin behar dute nora joan daitezkeen eta joaten diren tokian zer eskain diezaioketen; badakite, gainera, ez dela erraza izango familiari kontatzea.

Biktimei buruzko azterketa honek fokua beste nonbait ere jartzera eraman behar gaitu; erreparazio sozialean, lagunen sarean, nerabearen bizitza sozialean.. Hori guztia funtsezkoa da indarberri dadin. Horretarako, ordea, bai sistemak emandako erantzunak eta bai ingurune ez-formalak ez ditu errundun egin behar, ez eta berriro biktima bihurtu ere; eskubidea dute arreta integrala jasotzeko, indarberritzeko eta erreparaziorako.

Horretarako, profesionalek zaurgarritasun-txosten osoak ere eskatzen dituzte, biktimaren bizimodurako oinarri-oinarrizkoak diren alderdiak kontuan hartuta diseinatzeko arreta eta laguntza. Zaurgarritasun horretan, noski, indarkeria-egoera horren aurrean babesletzat jokatu dezakeen (edo ez dezakeen) ingurunea ere egon daiteke.

Diziplina anitzeko ikuspegiabarnean hartzen duen erantzuna behar dute biktimek, euren bizitzako esparru guztietan. Horretarako, beharrezkoa da, halaber, haiei ahotsa ematea, eta modu aktiboan parte hartu behar dute prozesuan. Ikerketa horretatik, laguntza eskatzeko beldurra ondorioztatzen da, ezin saihestuzkoa eta gaindiezina askotan. Zer eskaintzen diegu euren ausardiaren truke?

### **5.5. Erasotzaileak: berreziketa soziala vs. punitibismoa**

Erasotzaile nerabeen auziak hainbat eztabaida-ildo pizten ditu, eta funtsezkoak dira aurre egin behar diogun arazoa ulertzeko, batik bat erasotzaileekin zer egin behar dugun eta nola lan egin behar dugun pentsatzen hasten garenean. Nerabeak ez dira iritsi pertsona helduen garapen fisiko edo psikologikora, eta, beraz, banakako ikuspegi batetik artatu behar ditugu. Kontuan hartu behar dira Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean gazte-justiziaren esparruan jasotzen diren printzipioak, bai eta Haurren Eskubideen Batzordeak berak gomendatzen

**“Ez naiz justifikatzen ari, azalpen bat bilatzen baizik; halako bat egiten duten pertsonen osasun metalaz ari naiz. Adibidez, biktimaren kasuan, segurtasun falta... laguntza beharko du; baina kausak ere aztertu behar dira, erasotzailearenak”.**

Neska nerabea

duena ere: “Frogek argi erakutsi dute haurrek egindako delituen prebalentziak behera egiten duela printzipio horiekin bat datozen sistemak ezarri ondoren”.<sup>24</sup>

Adostasun handia dago profesionalen artean kontu honetan: adin penala jaisteak, zigorrak handitzeak edo ikuspegi errestitutiboa baztertzeak ez dute konpontzen arazoa. Funtsezkoa da prebentzio erreal eta eraginkorra, bai eta errestitutazio eta berreziketako prozesu bat abiatzea ere mutilekin.

### **Adin penala**

Espanian, pertsonak erantzukizun penala<sup>25</sup> du 14 urtetik aurrera, eta dagozkion neurriak hartzeko garaian, neurri horiek delituaren larritasunaren arabera ez ezik egin den adinaren arabera ere bereizten dira. Horrek ez du esan nahi pertsona helduei aplikatzen zaizkien arau berak aplikatzen zaizkienik; izan ere, 14 urtetik 18ra bitarteko pertsonen kasuan, urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena, aplikatu behar da. Nazioartean ere, ohikoena 14 urteko adinean ezartzea da, nahiz eta Haurren Eskubideen Batzordea kezkatuta agertu den hainbat estatuk adin penala jaisteko asmoa erakutsi dutelako.<sup>26 27</sup>

14 urte bete aurretik, erantzukizun zibilaria eutsiko zaio; hau da, erreparatu beharra izango da. Horrek esan nahi du, esparru penalean erantzun beharrik ez izan arren, babes-sistemak eta adingabeen fiskaltzak egin beharrekoak egingo dituztela pertsona hori, familia-ingurunean ez ezik, gizarte-zerbitzuetan edo erakunde espezializatu batean artatu dezaten. Haurrekin eta nerabeekin lanean

---

24 Haurren Eskubideen Batzordea (2019). 24. ohar orokorra, haurrak gazteen justizia-sisteman dituen eskubideei buruzkoa.

25 Erantzukizun penala delitu bat egitearen ondorioak onartzea da, dagokion zigor-legean jasotakoaren arabera; kasu honetan, Zigor Kodean jasotakoaren arabera.

26 Haurren Eskubideen Batzordea (2019). 24. Ohar orokorra, haurrak gazteen justizia-sisteman dituen eskubideei buruzkoa.

27 Haurren Eskubideen Batzordea (2016). 20. ohar orokorra, haurrak nerabezaroan dituen eskubideen eraginkortasunari buruzkoa.

ari direnen artean, oro har uste da ez dela beharrezkoa adin penala jaistea; baina, hori bai, 14 urte artekoekin ikuspegi integral batetik lan egin beharra dagoela diote, eta, adina dena delakoa izan arren, ingurunearekin ere lan egin behar dela, familiarekin bereziki. Haurren Eskubideen Batzordeak argi hitz egin du, adin penala ezartzeak duen garrantziaz ez ezik, haurrak eta nerabeak (adin horretatik beherakoak nahiz gorakoak) nola tratatu behar diren lantzeak duen garrantziaz ere. Hala, azpimarratu du gutxieneko adin horretara iritsi ez direnak ez direla hartu behar “delitu penalak egin dituzten haur” gisa.

Ez da ohikoa nerabeek, oro har, delitu larriak egitea. Erantzukizun penala izateko adina jaistek judizializazio desegokia edo gehiegizkoa eragin dezake hainbat auzitan, kontrol sozialeko beste instantzia batzuetan erantzun egokiagoa eta eraginkorragoa izango luketen hainbat auzitan, zehazki.<sup>28</sup>

### **Kondenaren iraupena**

14 urtetik gorako nerabeei adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoa aplikatzen zaie. Legeak bere zehapen-araubidea du, eta berreziketara eta joerak berrorientatzera bideratutako neurri eta zigorrak hartzen ditu barnean; egindako delituak larriak direnean, delitugilea erreforma-zentroetara eramatea planteatzen du.

Kriminalitatearen bilakaerari buruzko datuek nahiz berrerortzeari buruzkoek erakusten dute behar dena ez dela zigorrak gogortzea, ez soilik sistemak funtzionatzen duelako, baizik eta, horrez gain, erantzun penalak birgizarteratzea izan behar duelako xede, Espainiako Konstituzioak 25.2 artikuluan jasotzen duenez: “Askatasuna kentzeko zigorren eta segurtasun neurrien helburua pertsona berreztea eta birgizarteratzea izango da”. Kontu horri buruzko

**“Zigorra areagotzea  
gizarte gisa porrot egin  
dugula onartzea da; adin  
penala jaistea, beste bat”.**

Justiziaren esparruko profesionala

28 Colás Turégano, A. (2011). *Derecho Penal de Menores*. Tirant lo Blanch, Valentzia.

estatistika ofizialik ez badago ere, adingabe arau-hausleen berrerortzeari buruz azkena egin diren azterlanek diote % 30etik beherakoa dela.<sup>29 30</sup>

Haurren eta nerabeen kasuan, haien etorkizunarekin lotuta dagoen edozein neurri edo erabaki hartzerakoan, kontuan hartu behar dira beti zenbait irizpide, hala nola denborak haien garapenean duen eragin atzeraezina, familia-ingurunea zaindu beharra eta harreman pertsonalei eustea, hezkuntzarako eskubidea eta erabaki egonkorrak hartu beharra, haien integrazioa sustatzeko. Bada arlo profesional guztietan nabarmentzen den alderdi bat: funtsezkoena erasotzaileekin zentzu integral batean lan egitea da, haien zaugarritasun guztiak kontuan hartuta. Horregatik, hartzen den neurri orok Haurren Eskubideen Hitzarmeneko eskubideak errespetatu behar ditu, eta berreztera zuzendu behar du. Sexu-delituen kasuan, 5/2000 Lege Organikoko 7.5 artikulua argi dio: “sexu-hezkuntzako eta berdintasunerako hezkuntzako programatan sartu behar da”, neurri erantsi gisa.

Erasotzaileekin esku hartzen denean, behar-beharrezkoa da delitua bera egin dela aitortzetik abiatzea. Profesionalek indarkeriazko jokabideak normalizatzen ari direla hautemateak zera adierazten du: ez direla horien larritasunaz eta ekintza horien ondorioez jabetzen.

Biktimei ere eragiten die kontu horrek; ez profesionalek eta ez neska nerabeek ez dute punitibismoa bilatzen erantzunean, baina bai eragindako kaltearen ezagutza. Kontuak eman behar dira, ados daude horretan; baina funtsezkoa iruditzen zaie, ezagutzen dituzten kasuen arabera, mutilak egin duena aitortzea, eta biktimari sinestea eta babesa jasotzea.

---

29 Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011). *Factores de éxito asociados a los programas de intervención con menores infractores*. 123. orrialdea eta hurrengoak, berrerortzeari buruzko Ortega, García, eta de la Fuente-ren meta-analisiari buruzkoak (prentsan).

30 Kataluniako Generalitatea, Azterketa Juridikoen eta Prestakuntza Espezializatuaren Zentroa (Justizia Saila) (2023). Ikertzaile nagusiak: Marta Blanch Serentill eta Roger Mancho Fora.



Hala ere, oreka bilatzea delikatu da, profesionalek baitiote zigor-ikuspegi baten faltak ezin duela ekarri zigorgabetasun handiagoa. Bereziki kezkarria iruditzen zaie salaketak ezertarako balio ez duen sentimendua orokortzea, edota punitibismoaren ikuspegia ez txertatzeak haur eta nerabe neskekiko sexu-indarkeriaren legitimazioa ezkatzea atzean.

Illo horretatik, bada Save the Childrenen kezkatzen gaituen alderdi bat, azken lege-erreforme dagokienez: nerabeen erantzukizun penala, zehazki, eta zigorrak gogortzeko aukera, sexu-izaerako delituen esparrua zabaltzenaren ondorioz; izan ere, horren arabera, barneratze-erregimen itxia ezar daiteke neurri gisa.

Gaur egun, erregimen itxiaren neurria aplikatzeko bidea ematen duten delituei dagokienez 5/2000 Lege Organikoan txertatu diren aldaketek hainbat arazo eragin ditzakete.

Arauk, 7.3 artikuluan eta, oro har, 10. artikuluekin batera, zenbait irizpide zehazten ditu, ezartzen diren zigorrek pertsona helduei ezartzen zaizkienak gainditu ez ditzaten erabil daitezkeen zenbait neurri finkatzeko. Baina, sortu daitezkeen egoeraren arabera eta kasu bakoitzaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta, gerta daiteke nerabeei ezartzen zaizkien erregimen itxiko neurriek 18 urtetik gorakoei ezartzen zaizkienak (askatasunaz gabetzeko zigorra) gainditzea.

Adibidez, pertsona heldu batek 18 urtetik gorako beste pertsona baten aurka Zigor Kodeko 178.3 artikuluan zehazten diren sexu-delituetako bat egiten badu indarkeria edo larderia erabilia edo biktimak bere borondatea beste moduren batera ezeztatua duela, urtebetetik 5era bitarteko kartzela-zigorra ezarri ahal izango zaio. Baina 16 edo 17 urteko pertsona batek delitu hori bera egiten badu, urtebetetik 8 urtera bitartean erregimen itxian barneratuta edukitzeko neurri bat aplika dakioko.

**“Zertarako balio dizu urte  
gehiagoz edukitzea hor,  
gero berdin irtengo bada?  
Hor zertarako dagoen  
ikus behar da. Kartzelan  
egoteak okertu egin  
dezake”.**

Neska nerabea

Nazioarteko eta estatuko legediak,<sup>31 32</sup> ordea, printzipio hau jasotzen dute: erantzukizun penala izateko adina duen nerabe bati (Espainian, 14 urtetik aurrera) ezartzen zaion neurri bat ezin da izan inoiz 18 urtetiko gorakoei ezarritako zigorrak baino okerragoa.

### **Erasotzaileei zuzendutako arreta integrala**

Haur eta nerabe erasotzaileen arretarekin lotuta, kontuan hartu behar da beti eskubidedun subjektuak direla eta edozein programak haien interes gorenak izan behar duela ezaugarri. Hortaz, indarkeria horri ematen zaion erantzunak errespetatu egin behar du erasotzailea, berrezi, eta tratamendu egokia eman behar dio, etorkizunean horrelako jokabideak izatea saihesteko eta heldu denean bere bizimoduan indarkeria erabil ez dezan laguntzeko.

Badirudi adostasun handi samarra dagoela funtzionatzen duten ikuspegiei dagokienez ere. Landerberger eta Lipsey-k (2005)<sup>33</sup> egindako meta-analisiaren arabera (nerabe arau-hausleak berrezteko eta birgizarteratzeko programa kognitibo-konduktualak eta horien eragin positiboak aztertu zituzten), berriro halakoetan erori izanaren erakusgarri diren kasuen murrizketa lotuta dago, hain zuzen ere, indarkeria eta delinkuentzia justifikatzen edo normalizatzen zituzten

**“Haien garunak erabat garatu gabe daude, eta irekita daude prozesu errestitatiboetarako”.**

Genero-indarkerian aditua

31 Haurren Eskubideen Batzordea (2019). 24. ohar orokorra, haurrak gazteen justizia-sisteman dituen eskubideei buruzkoa.

32 NBEren Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmeneko arauak (1989), adingabeen justiziaren administratzaileentzat Nazio Batuen gutxieneko arauak (Beijingeko Arauak, 1985) eta Haurren Eskubideen Batzordearen (2019) 24. ohar orokorrak, haurrak gazteen justizia-sisteman dituen eskubideei buruzkoak, besteak beste, xedatzen dute neurriek adingabeen interes gorenak izan behar dutela abiapuntu, helburu hezitzaileak eta gizarteratzearekin lotutakoak izan behar dituztela, eta askatasuna kentzea azken aukera gisa hartuko dela soilik, eta ahalik eta denbora-tarte txikienerako. Urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan, adingabeen erantzukizun penala arautzen duenean, 8. artikuluko bigarren paragrafoan, zehazten da neurri askatasun-gabetzaileen iraupena ezin dela inoiz izan egitate berberaren ondorioz subjektuari, adin nagusikoa izanez gero eta Zigor Kodearen arabera erantzukizuna duela adierazita, ezarriko litzaiokeen zigor askatasun-gabetzailea baino luzeagoa.

33 Landerberger, N. A., & Lipsey, M. W. (2005). *The positive effects of cognitive-behavioral programs for offenders: A meta-analysis of factors associated with effective treatment*. *Journal of Experimental Criminology*, 1(4), 451-476. [ **ikusi hemen** ]

sinesmenak lantzearekin. Horrez gain, arrakastarako elementu gisa ageri zen emozio negatiboen eta gatazken kudeaketa, indarkeria erabiltzearekin lotuta baitaude horiek.

Ildo horretatik, profesionalek eta adituek diote gakoa ingurunean ere badagoela, eta, gainera, nerabe erasotzailea, bai banako gisa eta bai sozialki, ikuspegi integral batetik baloratu beharra dagoela. Ikuspegi horrek errestaurazioa eta berreztea izan behar ditu ezaugarri, eta inguruneak eta testuinguruak ere sartu behar dute zeregin horretan. Sexu-eraso bat egin duen nerabe bat berrez daiteke, baina zer gertatzen da hura garatzen ari den inguruneak ez badu aitortzen egindako eraso? Badago aukerarik?

Puntu honetan ere, bai biktimen eta bai erasotzaileen balorazio integrala eta multidiziplinarioa egin beharra dagoela diote, esku-hartzeen ardatza baita hori. Hala, ikuspegi integrala duen zaurgarritasun-txosten bat egiten ez denean programek eraginkortasuna galtzen dutela azpimarratzen dute. Aurreko hori guztia zeharkako lanarekin lotuta dago, bestela, ez baita eraginkorra izango. Koordinazioa eta lan multidiziplinarioa arrakasta lortzeko beharreko estandar gisa ageri dira.

Azken batean, 14 urte bete aurretik eta ondoren, funtsezkoa da arreta goiztiarra ematea, ikuspegi sozial batekin; haurrarekin banaka diseinatu behar dira halakoak, baina ingurunearekin ere bai, eta ingurune horretan aldaketa positiboak sortzera bideratuta egon behar dute. Prebentziorako nahiz indarkeria gertatu ondoren laguntzeko aplikatu beharreko zerbait da. Garrantzi berezia hartuko du esparru horretan familiak, lagun egiten horretan dagokion ardura hartu behar baitu; baina, horretarako, behar dituen tresnak eman behar zaizkio.<sup>34</sup>

---

34 Haurraren Eskubideen Batzordea (2019). 24. ohar orokorra, haurrak gazteen justizia-sisteman dituen eskubideei buruzkoa.

**“Kontua ez da zigor gorrigoak jartzea, erasotzaileekin eta familiekin lan egitea baizik, delitu bat egin duela aitortu eta ulertu dezaten”.**

Segurtasun Indar eta Kidegoak

## 6. Nerabeek egindako taldeko sexu-erasoak


### 6.1. Datuak eta ezaugarriak

Nerabeek eragindako sexu-indarkeriak gero eta kezka handiagoa sortzen du, baina ez soilik sexu-askatasunaren aurkako delituen salaketek gora egi dutelako, baita zenbait kasutan sexu-eraso horiek pertsona batek baino gehiagoak eginak direlako ere, taldeko sexu-erasoak direlako. Lehen-lehenik, horrelako eraso moten magnitudea aztertu behar da, eta zer neurritan ari diren ugaritzen ikusi.

Barne Ministerioaren arabera, pertsona batek baino gehiagok egindako sexu-erasoen kopurua handitu egin da azken urteotan. Hala ere, banakako sexu-erasoen kopuruetatik oso urrun daude oraindik, eta gehienak bi erasotzailek eginak dira, ez gehiagok.<sup>35</sup>

<sup>35</sup> Sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzko 2022ko txosteneko azalpen-oharra: “Honako hauen datu eskusiboak: Polizia Nazionala, Guardia Zibila, Nafarroako Foruzaingoa, Mossos d’Esquadra eta tokiko poliziak. Kriminalitatearen Sistema Estatistikoari ematen dizkieten datuak dira”.

**Ezagunak diren gertaera erregistratuak: bi pertsonak edo gehiagok egindako sexu-erasoak**




**“Bortxaketa edo sexu-erasoa sexualitatearen hasierako erritu bihurtzen ari da mutilen artean, batez ere taldeko erasoetan, eta hori da, benetan, gure kezka nagusia”.**

Osasunaren esparruko profesionala

**Sexu-delituak egile kopuruaren arabera**

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
<b>Guztira</b>	8.337	10.251	11.454	9.636	13.282	15.029
Arduradun batek egina	7.953	9.786	10.971	9.221	12.709	14.397
Bi arduradunek egina	258	320	327	296	397	434
Hiru arduradunek edo gehiagok egina	126	145	156	119	176	198

Autonomia-erkidegoei erreparatuta, 2017tik 2022rako kasuak (2.952 guztira) horrela daude banatuta:<sup>36</sup>



Txoten horretan, honako hau zehatzen da: bi arduradunek edo gehiagok egindako sexu-erasoei buruz Andaluzian, Madrilen, Valentziako Erkidegoan eta Katalunian jaso diren zifrak jaso badira ere, ehun mila biztanleko tasetan, bolumenik handiena Ceutari, Balear Uharteei, Valentziako Erkidegoari eta Kanariei dagokie.

<sup>36</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko eta 50 kasutik behera dituzten autonomia-erkidegoetako datuak falta dira.

Kopuruak gora egin arren (batez ere sarketarekiko sexu-erasoek), bi arduradun edo gehiagoko sexu-erasoen guztizko kopurua, 2022an, salatutako delitu guztien % 4,2koa izan zen. Eskura ditugun azterlan enpiriko batzuetan jasotzen denaren arabera, horrelako taldeko erasoetan parte hartu duten gehienak gazteak dira, mutil nerabe edo gazte helduak, banaka diharduten sexu-erasotzaileak baino gazteagoak.<sup>37</sup>

Zehazki, nerabeek egindako taldeko sexu-erasoetan, interes handia du Barne Ministerioak hainbat unibertsitaterekin batera egin duen azterketak.<sup>38</sup> Azterketa horretan, alde batetik, biktimaren haurtzaro eta nerabezaroari buruzko zenbait alderdi islatzen dira, eta, bestetik, arduradunak, adinaren arabera.

Biktimei dagokienez, aztertutako kasuetan, ikusten da gehienetan biktima bakarra dela, neskatoa edo nerabea, eta, batez beste, 15 urte ditu. Biktimak eta egileek antzeko adina izan ohi dute, aurretik ezagutzen dute elkar, askorik ez bada ere, eta delitua sarketarekin eta indarkeriarekin egin ohi da. Gainera, erasoak neguan eta udan izaten dira, asteburuetan nagusiki.

Ikuspegia erasotzaileengan jarrita ere, azterketa bat dator aurrekoarekin. Erasotzaile gehienak gizonak dira, eta aztertutako kasuen herenean, 18 urtetik beherakoak izan ziren. Azken kasu horretan, biktimarekin badute harremanen bat aurrez, eta “lan-arloa edo ikasketen arloa” nabarmentzen dira. Erasotzaile helduen artean ohikoagoa da eraso fisikoa; hitzezko indarkeria ohikoagoa da, berriz, 18 urtetik beherakoen artean.

Kontsulta egin zaien adituak ados daude oro har honetan: nerabeek egindako taldeko erasoak oso noizbehinka gertatzen dira, eta ez dagozkie soilik ezezagunei, biei baizik. Hala ere, deigarria da taldeko eraso batean parte hartu duten

37 López-Ossorio et al., 2022; Cazorla, Cristina (2021). «Aproximación al perfil criminológico de las agresiones sexuales en grupo: un análisis a partir de su casuística jurisprudencial». Revista Electrónica de Ciencias Criminológicas, 6.

38 Ministerio del Interior (s.f.). *Violencia sexual ejercida en grupo. Análisis epidemiológico y aspectos criminológicos en España*.

**“Oso urriak dira, ez zaigu ia halakorik iristen. Iristen dena jada aurrez badakiguna da, betikoa, honetan lan egiten dugunok dakiguna: familia-ingurunea, eta ezagunek egindako erasoak, bikotekideak bereziki”.**

Zuzeneko esku-hartzeen esparruko profesionala

**“Deigarria da erasotzaileak eurak izatea delituaren frogak bildu eta partekatzen dituztenak; ez da halakorik gertatzen beste delitu mota batzuetan”.**

Genero-indarkerian aditua

erasotzaileak hartzea zenbaitetan, baina ez talde osoa. Horrez gain, azaldu dute zenbaitetan erasotzaileen talde bat izaten dela hainbat erasoren erantzule.

Horrez gain, taldeko sexu-erasoetan, kontuan hartu behar dugu zer eragin duen teknologiak halakoak egiteko orduan. Indarkeria birala (2019) azterlanean, ikusi genuen indarkeria mota gisa nola agertu zen *happy slapping*<sup>39</sup> deritzona edo *revenge porn*,<sup>40</sup> delakoa; orain, egile askoko sexu-erasoen,<sup>41</sup> % 10 grabatu egiten dira, edo argazkiak ateratzen dira, menderatze-seinale gisa eta parekoen taldearen aitortza lortzeko xedez; kezka handia sortzen duen gaia da.

Gainera, kezkarria da ikustea zer eragin duen pornografiak, afektibitate-eta sexu-hezkuntzaren gabeziaren aurrean; izan ere, mutilak sexualitatean hasteko erritu bihurtzen ari dira sexu-erasoak, batik bat taldeko sexu-erasoak. Ildo horretatik, pornografiak sexu-eraso guztietan duen eraginak kezkatzen bagaitu ere, badirudi eragin handiagoa duela taldeko sexu-erasoetan. Horrelako erasoetan, hiru dimentsio nabarmentzen dira problematika horretan, eta merezi du horretaz gogoeta egitea:

1. Taldeko erasotzaileen justifikazioa edota, areago, glamour-posizioa. Multzo honetan sartzen dira kriminalizatu edo biktimizatu egiten duten erreakzioak ere, ez biktimekin ez erasotzaileekin arazoari heltzen batere laguntzen ez dutenak.
2. Taldekideen eragina, aurreko puntuari oso lotuta dagoena. Parekoek eragina dute egiten den delitu motan. Talde bateko kide izateak erantzukizun pertsonala minimiza dezake, eta jokabidea deshinibiltzera bultzatu, delitua egitea erraztu zereginak banatuz, eta kide bakoitza indartu, taldeko ekintzaren bidez.

39 Erasotzaile bat grabatzea gero zabaltzeko, *bullying*arekin estuki lotua.

40 Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren irudi intimoak zabaltzea hura umiliatzeko xedez.

41 *Geoviolencia sexual*. [sarean] [ **ikusi hemen** ]



3. Mutilek sexu-indarkeria ez identifikatzea. Kasu honetan, indarkeria, taldeko delitua baino gehiago, banakako delitu gisa ikusten da. Erasoa sarbide-erritu gisa ikustearekin lotutako problematika agertzen da hemen. Hala ere, kezkarria da bereziki indarkeria hori ez identifikatzea eta, horrez gain, txantxa gisa hartzea, batez ere beren artean, mezu-taldeetan, berresteko gune bihurtzen baitira horrela, eta ez halakoak baztertzeko bide. Gune horietan, eduki pornografiko ugari dituzte, eta eskatu gabe iristen zaizkie askotan; besterik gabe “lagunekin txorakeriak partekatzea” dela iruditzen zaie.

## 6.2. Kutsatze-efektua

Ezagunakdirahedabideetandelituentratamenduariburuzpiztendireneztabaidak. Kezka sortzen dute zenbait kasuren berri ematean horiek izan dezaketen kutsatze-efektuak edo dei-efektuak, etorkizunean errepikatu baitaitezke. Sexu-delituei buruzko informazioa jasotzeak ez die berdin eragiten pertsona guztiei. Hainbat faktorek eragiten diote elkarri horretan (testuingurukoak, delitu motak, informazioaren edukiak, ezaugarri pertsonalek, etab.). Dena den, faktore posible bat horrelako delituetan komunikabideek izan dezaketen eragina eta betetzen duten zeregina da. Ildo horretatik, komunikabideek behin eta berriro horrelako informazioa emateak ea antzeko delituen gorakada eragin dezakeen planteatzen da. Gabriel Tarde frantziar kriminologoa izan zen delituen imitaziorako iturri gisa komunikabideek bete zezaketen lekua azpimarratu zuena.

Imitazio hori gauzatu dadin, garrantzitsutzat jotzen den gertaera bat izan behar du, gero erreferente bihurtuko dena, errepikatzeko. Kontu horri dagokionez, duela gutxi egindako ikerketa batean ageri denez, Espainian 2014tik 2018ra bitartean gora egin dute sexu-erasoen kopuruak eta komunikabidetan horiei buruzko berrien agerpenak; sexu-erasoen kopurua ia sei aldiz handiagoa da, eta esparru horretako berrien kopurua, berriz, 2,5 aldiz handiagoa. Azterlan horretan

**“Taldeko kasuen berri dugunean, adingabeen modus operandia, askotan, pornoaren errepikapena da”.**

Segurtasun Indar eta Kidegoak

jasotzen denez, sexu-erasoen agerpenen gorakada horien gorakadarekin lotuta dago.<sup>42</sup>

Ilido horretatik, 2019an, Adingabeen Salako fiskal koordinatzaileak abisu eman zuen “manada” direlakoek (taldeko bortxaketek, bi pertsonak edo gehiagok gauzatutakoek, alegia) izan zezaketen “kutsatze-efektuz”, horrelako delituetan “erasotzaileen mailara iristeko grinak” bultzatuta.<sup>43</sup> Horrez gain, Fiskaltzak 2019ko ekitaldiko Memorian sexu-indarkeriaren kasuek gora egin dutela ohartarazten duenean, aurreko urtean “La manada” auziaren kasazio-errekurtsoa ebatzi zenean izan zen hazkundearen berri ematen du”.<sup>44</sup>

---

42 De la Torre, J., Rodríguez, J. M., eta Toro, J. C. (2020). *The influence of media in multiple perpetrator sexual assaults in Spain*.

43 EuropaPress (2020ko irailak 7). La violencia sexual entre menores registró un «alarmante incremento» en 2019, según la Fiscalía.

44 Fiskaltza (2020). Fiskaltzaren 2019ko ekitaldiko Memoria. 28. or.

## 7. Ondorioak: erantzukizun partekatua

Sarreran adierazitakoaren ildotik, Espainiako nerabeen arteko sexu-indarkeriaren errealitatean jarri nahi du arreta dokumentu honek, indarkeria mota horrek gizartean gero eta kezka handiagoa pizten duenez azken urteotan. Gizartearen kezka horrek badu oinarririk? Erantzuna baiezkoa da; indarkeria mota hori badago, eta gero eta gehiago dira salaketak. Dena den, datuek erakusten digute nerabeek eragindako indarkeria guztiak ez direla sexu-askatasunaren aurkakoak, ez eta taldeko sexu-indarkeria kasuak ere; hala ere, kezka eragiten du egoerak, eta ezin dugu albora utzi.

Haurren eta nerabeen aurkako indarkeria mota orori heldu behar diogu, erroretik erazteko; indarkeria mota larrienei bereziki. Dena den, gure gogoeta harago iritsi behar du. Indarkeria kriminalizatzeak eta patologizatzeak ez dute hura erazten laguntzen, ez eta indarkeria hori legitimatzeak, zigorgabetasunak edota normalizazioak ere.

Gainera, kontuan hartu behar dugu beti biktimekin nahiz erasotzaileekin garatzen den jarduketak oro Haurraren Eskubideei buruzko Hitzarmena bete behar duela, eta, beraz, prebentzioak, horrelakoak hautemateak eta arretak haurren eta nerabeen eskubideen ikuspegia izan behar dute abiapuntu.

Horregatik, eta gai honek duen garrantziagatik (asko daukagu jokoan), ondorioak betebeharren zerrenda bat dira, eta gomendioak ere bai. Ez dago beste aukerarik.

Hala ere, badakigu prebentzioa dela gakoa. Zalantzarik gabe, indarkeria horren oinarritzko testuingurua lotuta dago matxismoarekin, nagusi diren maskulinitate eta feminitate sexistekin eta afektu- eta sexu-hezkuntza falta izatearekin, eta lotuta dago teknologiek ere. Indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea dute haurrek eta nerabeek, baina ez gara ari horretarako ingurune bat prestatzen. Huts egiten ari gara haiekiko komunikazioan, eta ez da batere erraza errealitate horiek ukatzen dituzten joerak gainditzea. Prebentziorako, ezinbestekoa da genero-rol

**“Indarkeria ez da kartzelan konpontzen, prebentzioarekin konpontzen da”.**

Hezkuntzaren eta prebentzioaren esparruk profesionala

**“Kasu asko  
gaizki-ulertuengatik  
gertatzen dira; zuk agian  
zerbait ondo dagoela uste  
duzu, baina, egiaz, ez dago  
ondo, gaizki dago”.**

Mutil nerabea

eta -estereotipoak baztertuko dituen hezkuntza bat garatzea, berdintasunetik aldentzen den gizarte batean biziarazten gaituzten jarrerak eta sinesmenak kanpoan utziko dituen hezkuntza bat.

Fenomenoa, haren arrazoiak, ondorioak eta ezaugarriak aztertzen jarraitu behar dugu, eta, hasteko, datu espezifikoak behar ditugu, adinaren eta sexuaren arabera banandutakoak. Azterlan honetan, ikusi dugu taldeko sexu-erasoen eta banakako arteko aldeetan sakontzen jarraitu behar dugula. Ikertzen jarraitu behar dugu, eta hainbat arlotan jarri behar dugu fokua, esparru digitalean, esaterako, edo substantzien kontsumoan, edo pornografiaren kontsumoan; bikote barnean eta handik kanpo gertatzen diren sexu-indarkerietan, eta familia-inguruneetan. Ikuspegi horretatik, profesionalei hemen planteatu ditugun kasuak iristen zaizkiela jabetu behar dugu. Eta iristen ez zaizkienak? Ez dago sexu berekoak diren parekoen arteko sexu-indarkerien erreferentziarik, ez behintzat arretaren esparruan; baina ez salatzeak ez du esan nahi gertatzen ez denik, ondo dakigu hori.

Biktimekin eta erasotzaileekin garatzen ditugun esku-hartzeak ikuspegi integral eta multidiziplinario batetik planteatu behar ditugu, ordain soziala eta haur eta nerabeen ingurunea ere kontuan hartuta. Norbanakoari eta testuinguruari egokitutako esku-hartze programak behar ditugu, arlo sozialean ardaztuko direnak, bai erreparazioari eta bai berreziketari erreparatuta.

---

## 8. Gomendioak: babes-faktoreak

### *Datuak eta ikerketa*

**Nahikoa datu.** Gaur egun erabil daitezkeen datu-base ofizialak oso urrun daude oraindik errealitatearen adierazgarri zehatza izatetik, are gehiago horrelako indarkeria motetan haurren eta nerabeen gaineko datuak bilatzen hasten garenean. Balio digute hurbilketa bat egiteko, baina alderdi asko daude hobetzeko. Ildo horretatik, gehiago sakondu behar litzateke sexu-indarkerian, generoaren eta aniztasunaren ikuspegia hartuta.

Horregatik, funtsezkoa da datu-baseak eta ikerketak bultzatzea hainbat gairi buruz, arrisku-faktoreei eta babes-faktoreei buruz, esaterako, edota salatzen denetik egiten den prozesuan gertatzen denaz, edo sistemak biktimei eta erasotzaileei ematen dien erantzunaz. Horrez gain, ezinbestekoa da arreta-programen eraginkortasunarekin lotutako ebidentzietan oinarritutako ikerketekin jarraitzea. Haurren aurkako Indarkeriaren Erregistro Bateratua sortzeak aukera paregabea eman dezake horrelako gaiak ere bilduz datu-basea osatzen joateko.

### *Prebentzioa eta hautematea*

**Hezkuntza afektibo eta sexuala.** Hezkuntza afektibo eta sexuala jasota dago Hezkuntza Legearen Erreforma Legean (LOMLOE), bai eta haurrak eta nerabeak Babesteko Legean ere (LOPIVI). Hala ere, garatzeke dagoen zeregin nagusia da prebentzioarena.

Beharrezkoa da genero-berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako hezkuntza afektibo eta sexuala, arautua, adin goiztiarretatik garatua eta hezkuntza-etapa bakoitzari egokitua. Hainbat gai jorratu behar ditu hezkuntza horrek,

**“Gaur egun, ez dago prebentziorik ia. Prebentzioa ez dira institutuko bi ordu; une oro ate bat irekita edukitzea da”.**

Genero-indarkerian aditua

hala nola onespina, gorputzaren autonomia eta emozioen, komunikazioaren eta berdintasunezko harremanen garapena. Oinarri-oinarrizko alderdiak dira pertsona ororen garapenerako, eta haurtzaroan hasten dira. Hezkuntza horrek, gainera, nerabe guztiengana iritsiko den berdintasunezko hezkuntza izan behar du gidari. Haurrei eta nerabeei eredu alternatiboak eskaintzea faktore bereizgarri bihurtu daiteke, eta hor sartzen da parekoen taldea ere. Aurrez arrisku-faktore gisa identifika daitekeenez, parekoen taldean horrelakoak geldiaraztea garrantzitsua da, batik bat mutilen artean.

**Herritartasun digitalerako hezkuntza.** Teknologia segurtasunez eta arduraz erabiltzeko heztea, genero-ikuspegia ere barnean hartuta. Aurreiritzirik eta beldurrik gabe, nerabeentzat oinarrizkoa da beren bizitzako eremu garrantzitsuenetako bat maneiatzen jakitea. Ezin dugu teknologiak eskaintzen jarraitu, horiek erabiltzeko beharrezkoak diren tresnak eman gabe. Horregatik, inguru digitala haien hezkuntzan txertatu behar dugu.

**Etengabe informatzea eta sentsibilizatzea, hitzaldietatik harago joz.** Informazioa gizarte-inguruneari eta nerabeei zuzendu behar zaie. Hala, jardunbide on gisa identifikatzen dituzte profesionalek eskoletako hitzaldi eta lantegiak, baina hezkuntza horren zati gisa; ezin dira zerbait puntuala izan. Adinean lehenago jaso behar dira, eta haur eta nerabe guztiengana iristeko zer formatu den egokia balioetsi behar da; izan ere, badirudi ez zaiela informazioa berdin iristen neskei eta mutilei. Neurri honi dagokionez, eskaera argia egiten da: informazio gehiago behar dute, bilakatzen joan beharra dago arlo horretan, eta adibide zehatzak eman behar dira, bai eta lekukotasunak ere, antzeko egoeraren bat bizitzen ari direnei laguntzeko.

Gainera, informazioa eskuratzeko eskubidea bete behar da, salaketak egiteko nerabeentzat dauden baliabide eta mekanismoetan ere, informazioa formatu egokian eta erabilgarrian jasotzeko eskubidea baitute.

**Erreferentziako figurak.** Nerabeek eskolan erreferenteak behar dituztela diote, eta eskaera egiten dute, hitz egin beharra dutenean erreferente horiengana jotzeko. Eskola oso toki garrantzitsua da, hortxe pasatzen baitute denbora gehien. Eraginkortasunez ezarri behar da ongizateko koordinazioko figura eta babes-ordezkaritzakoa, bai eskola-esparruan eta bai aisialdian.

**Komunikabideak.** Komunikabideek ardura handia dute, haurren eta nerabeen eskubideak urratzen direnean horri buruzko informazioa ematerakoan. Zuzenean nahiz zeharka haurrei eta nerabeei eragiten dien kontu bat denean, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren esparrua eta haurren eta komunikazioaren arloan aplikagarri den gainerako legediaren esparrua betez eman behar dute horren berri.

**Profesionalen prestakuntza.** Haurrekin lan egiten duten profesionalek prestakuntza espezializatua jaso behar dute (prebentzioaren ikuspegitik ere bai) hainbat gairi buruz, hala nola haurren eta nerabeen eskubideei buruz, teknologiari buruz eta haurren kontrako indarkeriari buruz, hala, haurrei eta nerabeei ere ezaguera horiek helarazteko. Gainera, prestakuntza hori esku-hartze motari eta bakoitzaren lanbide-esparruari egokitu behar zaio.

**Babes-politikak eta jarduketarako protokoloak.** Prebentzioaren ikuspegitik haurrenganako tratu onak lantzeko eta egoera arriskutsu bat edo indarkeriazko bat hautematean zer egin eta norekin hitz egin esango digun mapa bat garatzeko oinarritzko gida osatzen dute tresna horiek. Haurrak eta nerabeak garatzen diren ingurune guztiak seguruak izan daitezzen, babes-politika integralak abiarazi behar dira, eta ez soilik prebentzioaren gaian. Detekzio goiztiarrerako protokoloek eta jakinarazpen-sistemek, haur eta nerabeei nahiz profesionalei kasuak hauteman eta jakinarazteko modua emango dietenek, zehazki, alde handia eragin dezakete laguntza jasotzeko orduan, indarkeria ezkutuan gera baitaiteke bestela.

**“Gure etxean, horrelako gaiekin lotutako berriak izaten direnean, hitz egiten da gai horietaz; adibidez, nire aitak komentatu egiten ditu, gaizki dagoela eta horrelakoak esaten ditu”.**

Mutil nerabea

**“Profesionalen prestakuntzan, gabezia handia dago, ez dakitelako hautemate askotan, edota, hautematen dutenean, ez dakitelako zer egin, nora bideratu”.**

Osasunaren esparruko profesionala

**Familiantzako tresnak.** Profesionalek, adituek eta nerabeek eskatzen duten zerbait da hau. Familiek beren ardurak bete behar dituzte haurren haziera positiborako, prebentzio-izaeraz nahiz leheneratu edota berrezteko prozesuan laguntzeko. Horretarako, babesa eman behar diete administrazio publikoek, eta horrek tresnak ematea eta laguntzea esan nahi du.

### ***Arreta integrala eta multidiziplinarioa***

**Familietikiko eta ingurunearekin lana.** Funtsezkoa da familiekin egiten den lana emaitza onak lortzeko, batez ere erasotzaileekin ari garenean, baina baita biktimekin ari garenean ere. Erasotzaileei dagokienez, 14 urtetik gora badituzte, ez da nahitaezkoa familiekin lan egitea, baina beharrezkoa litzateke.

**Zaugarritasunari buruzko txosten holistikoak.** Zaugarritasunari buruzko txostenak dira banakako arretarako programa eraginkorrak eraikitzeko oinarriak. Bai profesionalek eta bai nerabeek eskaera argia egiten dute: erasotzaileen eta biktimen inguruabar espezifikoek erantzun behar zaie, kontuan hartuta izan daitezkeen arrisku-faktoreak eta babes-faktoreak nahiz ingurunea.

**Profesionalen prestakuntza.** Ezinbesteko faktorea da espezializazioaren kalitatea, bai eta profesionalena ere; adostasun handia dago gai horretan. Gainera, tratamenduari jarraipena talde berak ematea beharrezkoa dela azpimarratzen da, txandakatze handiegirik gabe. Nazioarteko zuzentarauekin bat etorrita, gazteen justizia-sistemako profesionalek haurren eta nerabeen garapen fisikoa, psikologikoa, mentala eta soziala ezagutu behar dituzte, bai eta baztertuen daudenek zer behar dituzten ere. Biktimekin eta erasotzaileekin lanean ari direnean, erreparazio-prozesuan profesionalak aldatzeak asko desorienta ditzake, tratamendu-ildo desberdinak erabil baititzakete.



**Justizia-sistema.** Justizia-sistemak espezializatzen jarraitu behar du, ez soilik erasotzaileei erreparatuta, baita biktimei ere. Sexu-indarkeriaren gaian, erabakigarriadaeguneratzea eta prestatzea, esparru horretako profesionalentzat. Gainera, behar-beharrezkoa da baliabideak berriro planteatzea eta gutxieneko estandar komun batzuk ezartzea autonomia-erkidego guztietan, baliabideen faltak eragina izan baitezake. Bai baliabideak eta bai espezializazioa lagungarri izan daitezke gazteen justizia-sisteman identifikatutako arazoetako bati heltzeko: epe luzeak eta saturazioa. Instrukziotik bertatik hasita, denbora behar da, eta, adingabeen justiziaren kasuan, fiskaltzari dagokio hori.

**Erasotzaileentzako baliabideak.** Behar-beharrezkoa da erasotzaileekin modu integral eta indibidualizatu batean lan egitea. Haren testuinguru osoa kontuan hartzen duen zaugarritasun-txosten batetik hasita bere denbora eskatzen duen esku hartzeko plan bat izan arteko bidean, neurri guztiek prozesu terapeutikoarekin koordinatuta egon behar dute. Horrez gain, barneratze-baliabideak ere banan-banakoari egokituta erabili behar dira, ratio txikiagoekin eta espezializazio handiagoarekin.

**Biktimen balorazio integrala.** Kaltea bere osotasunean baloratzeko, zaugarritasun-txostenek arriskuaren eta babesgabetasunaren adierazle guztiak islatu behar dituzte.

**Informazio egokitu eta erabilgarria.** Biktimek beren eskubideak eta erabil ditzaketan baliabideak ezagutu behar dituzte; haur eta nerabeen eskubidea da informazio fidagarri eta praktikoa jasotzea, oinarrizkoa baita haiek babesteko.

**Biktimen arreta.** Indarkeriaren biktima haur eta nerabeen oinarrizko eskubidea da arreta integral, espezializatu eta multidiziplinarioa, eta halaxe jasotzen dute bai nazioarteko eta bai estatuko araudiek.

**“Horrelako gai baten gainera hitzaldi bat dugula esaten digutenean, jende askok “eskola-ordu librea” pentsatzen du; ez zaie interesatzen, eta ez dute hitzaldia entzun nahi”.**

Mutil nerabea

Babes-zentroekin lotuta, sexu-indarkeriaren biktima izan diren neskekin lan egiteko gune espezifikoak eskatzen dituzte profesionalek, beharrezkoak direlako haien iritziz, horrela organismo espezifikoetara jotzeko dituzten zailtasunak saihesteko.

**Baliabideen arteko koordinazioa.** Lurraldeetan biktima helduentzako eta haurren arretarako dauden baliabideen arteko koordinazioa haurren eskubideen parte da, haurren interes gorena errespetatzeko, jarduketak ez bikoizteko eta hobetzeko. Arazo berari aurre egiteko hainbat baliabide izateak nahasi egin ditzake biktimak. Koordinazio horrek, gainera, barnean hartu behar ditu 18 urte bitarteko erasotzaileei zuzentzen zaizkien baliabideak ere, askotan eurak ere biktima izan baitira.

## **Barnahus eredu**

**Barnahus eredu** (Haurren Etxea esan nahi du islandieraz) arreta integrala emateko eredu bat da, non haurren kontrako sexu-abusu kasu batean esku hartzen duten erakunde guztiek koordinatuta lan egiten duten elkarrekin eraikin berean, haurra bigarren aldiz biktimizatzea saihesteko. Barnahus ereduak, bere baliabideen bidez, biktimaren lekukotasuna ingurune lagunkoi batean, teknologia egokiarekin eta prestakuntza handiko profesional espezializatuekin grabatzeko aukera ematen du. Horrela, haurrak ez dauka bere lekukotasuna behin eta berriro errepikatu beharrik, grabazioa behar adin aldiz erreproduzi baitaiteke; hala, prozesu horretan biktimari kalte egitea saihesten da. Espainian eredu hau ezartzeko abiapuntua nazioarteko ebidentziak eta jarraibideak izan ziren.

*Barnahus* baliabidea<sup>45</sup> lurralde bakoitzaren beharretara egokitzen den eredu bat da, ereduaren kalitate-estandarrek errespetatzen badira, betiere. Save the Childrenek, eredu horren arrakasta bermatzeko, Barnahus eredu esperientzia pilotu ebaluagarriekin hasteko gomendioa ematen du, haurren kontrako sexu-indarkeriaren biktima izan direnak artatuz. Zergatik? Sexu-indarkeria indarkeria mota larrienetakoa izateaz gain, errazagoa delako talde objektiboekin eta indarkeria mota jakin batzuekin hastea, eta, gero, pixkana egitea aurrera, behar guztiei erantzungo dien eredu bat osatu arte. Ildo horretatik, interesgarria da ikustea, eredu honek ibilbide luzea egin duen herrialdeetan, adin desberdinetakoak, indarkeria mota desberdinak eta 18 urte arteko erasotzaileak hartzen eta lantzen dituztela.



45 Save the Children Espainia (d.g.). Barnahus eredu. [ **ikusi hemen** ]

---

## Bibliografía

- » Amorós, C. (editorea) (2000). *Feminismo y filosofía*. Madril: Editorial Síntesis.
- » Ballester, L. eta Orte, C. (2019). *Nueva pornografía y cambios en las relaciones interpersonales*. Madril: Octaedro.
- » Cobo, R. (2020). *Pornografía. El placer del poder*. Bartzelona: Penguin Random House.
- » Colás Turégano, A. (2011). *Derecho Penal de Menores*. Tirant lo Blanch, Valentzia.
- » Cazorla, Cristina (2021). «Aproximación al perfil criminológico de las agresiones sexuales en grupo: un análisis a partir de su casuística jurisprudencial». *Revista Electrónica de Ciencias Criminológicas*, 6.
- » Haurren Eskubideen Batzordea (2016). 20. ohar orokorra, haurrak nerabezaroan dituen eskubideen eraginkortasunari buruzkoa.
- » Haurren Eskubideen Batzordea (2019). 24. ohar orokorra, haurrak gazteen justizia-sisteman dituen eskubideei buruzkoa.
- » Cuéllar, Pablo J. eta Hernández, Carmelo (2021). “Violencia de género, condenados e intervención en medio abierto: premisas, avances y retos”. *Revista Electrónica de Estudios Penales y de la Seguridad (REEPS)*. 9.
- » De Miguel, A. (2015). *Neoliberalismo sexual. El mito de la libre elección*. Madril: Cátedra. Feminismos.
- » De la Torre, J.; Rodríguez, J. M., eta Toro, J. C. (2020). *The influence of media in multiple perpetrator sexual assaults in Spain*.

- » Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza (2018). *Percepción social de la violencia sexual*.
- » Estatuko Fiskaltza Nagusia (2017). 1/2017 Zirkularra, ekainaren 6koa, Zigor Kodeko 183 quarter artikulua interpretazioaren ingurukoa.
- » Kataluniako Generalitatea, Azterketa Juridikoen eta Prestakuntza Espezializatuaren Zentroa (Justizia Saila) (2023). Ikertzaile nagusiak: Marta Blanch Serentill eta Roger Mancho Fora.
- » Landenberger, N. A., & Lipsey, M. W. (2005). *The positive effects of cognitive-behavioral programs for offenders: A meta-analysis of factors associated with effective treatment*. *Journal of Experimental Criminology*, 1(4), 451–476. <https://doi.org/10.1007/s11292-005-3541-7>
- » Mestre-Bach, G., Villena-Mora, A., Chiclana-Actis, C. (2023) *Pornography Use and Violence: A Systematic Review of the Last 20 Years, Trauma, Violence & Abuse*. <https://doi.org/10.1177/15248380231173619>
- » Barne Ministerioa (2022). Sexu Askatasunaren aurkako Delituei buruzko 2022ko Txostena.
- » Barne Ministerioa. López-Ossorio et al., 2022. *Violencia sexual ejercida en grupo. Análisis epidemiológico y aspectos criminológicos en España*.
- » Fiskaltza (2020). Fiskaltzaren 2019ko ekitaldiko Memoria. 28. or
- » Fiskaltza (2023). 2022ko jarduerari buruzko Fiskaltzaren Memoria.
- » Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa (2011). *Factores de éxito asociados a los programas de intervención con menores infractores*. 123.

orrialdea eta hurrengoak, berrerortzeari buruzko Ortega, García eta de la Fuenteren meta-analisiari buruzkoak (prentsan).

- » Nazio Batuen Erakundea (2012ko uztaileak 12). Prentsa-oharra: *Children with disabilities more likely to face violence, says UN-backed study*. Hemendik hartua: <https://news.un.org/en/story/2012/07/415382>
- » Paul, P. (2005). *Pornified: How pornography is transforming our lives, our relationships, and our families*. Kanada: Henry Holt and Company.
- » Pérez Y. (2016) *Consentimiento sexual: Un análisis con perspectiva de género*.
- » Peter, J. eta Valkenburg, P. M. (2016), "Adolescents and pornography: A review of 20 years of research", *The Journal of Sex Research*, 53. liburukia, 4-5. Zk. 509-531. or.
- » Ruiz-Repullo, C. eta Pavón-Benítez, L. (2022b). *La violencia invisible. Violencia psicológica de género en la pareja*. Sevilla: Páginas Violeta.
- » Ruiz-Repullo, C. (2022a). "Lo que el consentimiento esconde. El deshielo de la violencia sexual en la adolescencia". *Revista Nuevas Tendencias en Antropología*, 13, 70-89. or.
- » Ruiz-Repullo, C. (2021) *Nuestros cuerpos, nuestras vidas. Un acercamiento a la violencia sexual en la juventud*. Universitat de les Illes Balears: Colección Estudios de Violencia de Género, 9.
- » Ruiz-Repullo, C. (2021). "La pornografía: una escuela de violencia sexual para la masculinidad hegemónica", in A. Téllez, J. E. Martínez eta J. Sanfélix (Ed.), *De la Teoría a la Acción: en busca de masculinidades igualitarias*. Madril: Dykinson. 115-131. or.

- » Ruiz-Repullo, C. (2017). *La violencia sexual en adolescentes de Granada*, Granada: Granadako Udala. <https://www.granada.org/inet/wmujer8.nsf/wwlegipubli/2F8F7FB3E301BD59C12580D700338084>
- » Save the Children (2019). *Indarkeria birala. Ingurune digitaleko hurren eta nerabeen kontrako indarkeriaren analisia.*
- » Save the Children (2020). *Sexu-(des)informazioa: pornografia eta nerabezaroa. Nerabeen pornografia-kontsumoaren eta horrek garapenean eta parekoekiko harremanetan duen eraginaren analisia.*
- » Save the Children (2021). *Ez da maitasuna: nerabeen arteko genero-indarkeriari buruzko analisia.*
- » Save the Children (2023). *Hurrek merezi duten justizia baten alde. Espainian hurren kontra izaten diren sexu-abusuei buruzko epaien azterketa.*
- » Valdés, I. (2018). *Violadas o muertas. Un alegato contra todas las “manadas” (y sus cómplices)*. Barcelona: Península breve.
- » Vigarello, G. (1998). *Historia de la violación. Siglos XVI-XX*. Madrid: Cátedra.
- » Zabalgoitia, M. (2022). “Retóricas del meme masculinista. Universidad digital y antifeminismo en tiempos de pandemia”. *Mitologías hoy*, 25. 68-90. or.

---

## Kolaborazioak

- » La Madraza BHIko ikasleak.
- » Ana Burgos García. Observatorio Noctámbul@s (Fundación Salud y Comunidad).
- » Anna Fàbregas Martori pediatra endokrinologoa. Hospital Universitari Vall d'Hebroneko EMMA taldeko koordinatzailea.
- » Celia Nevado Fernández. PhD. Haurren, Nerabeen eta Indarkeriaren Programen zuzendaria. Fundación Márgenes y Vínculos.
- » David Casanovas i Andradas, Inspector i Cap de l'Àrea Central de Menors Mossos D'Esquadra.
- » Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Estatuko Kontseilua.
- » Luis Carlos Nieto, adingabeen justiziako magistratua.
- » MaríaCristina Marí García, komisario nagusia, UFAM Central erakundeko burua.
- » María Elena Palacios Tejero, ikuskatzaile nagusia, UFAM Central erakundeko zerbitziburua.
- » Marina Marroquí, gizarte-hezitzailea eta genero-indarkerian aditua.
- » Natalia Palanques Alegre, Fundación Diagrama Intervención Psicosocial erakundeko Gizarte eta Hezkuntzako Talde Teknikoa.
- » Teresa Vallejo Echeverría, Bartzelonako Clinic Ospitaleko Indarkeria Matxista eta Osasun Batzordeko erizaina eta Bartzelonako Erizainen Elkargo Ofizialeko Indarkeria eta Osasuna Batzordeko kidea.
- » Victoria Carbajal Fernández, Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiko Sexu Erasoen Biktimentzako Krisi Zentroko koordinatzailea. Asturiasko Printzerria.





---


## **Esker onak**

Eskerrik beroenak beren denbora eskaini diguten eta beren iritziak eta kezkek gurekin partekatu dituzten neska-mutilei. Espero dugu egoerak eskatzen duen maila eman izana; zuen proposamenen berri emango dugu.

Eskerrik asko ikerketa hau eta aurretiazko gure jarrera egin duten lankide guztiei (asko dira), hauei bereziki: Tamara Lertxundiri, Claire Juillardi, Daniel Todari, Laura Sorianori, Clara Burrieli, Silvia de Benitori eta Miguel Borqueri, argitalpenari egindako ekarpenengatik.

Hautzaroarekin eta nerabezaroarekin duten esperientzian eta konpromisoan oinarrituta, beren denbora eskaini digute pertsona askok. Horiei guztiei, eskerrik asko.

ISI  
LAR  
AK  
AK



Argitaratzailea:  
**Save the Children Espainia**  
**2024ko martxo**



**Save the Children**

